

# Goienkaria

ASTELEHENEKO

2007ko otsailaren 26a > Astelehena > III. urtea > 135. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Digitalizazioa ahalegina da tokiko medioendako, baina onerako izango da"

Beatriz Zabalondo  
Irakaslea > 06



**G2a** Kanpoko gastronomia gurean > 23

**DEPENDENTZIAREN LEGEA**  
Menpekotasuna dutenek baliabide gehiago izango dituzte > 02-03

**ESKUBALOIA**  
Gipuzkoako Txapelketa poltsikoan daukate bergarrek > 19

**KILOMETROAK**  
Kilometroen aldeko kontzertuan, 110 lagun batu ziren Jamen > 26



LEPO BETETA Jendez gainezka egon zen Uarkape Merkemerkaurekin, guztiak eskaintza onenaren bila.

JOSETXO ARANTZABAL

**EROSKETAK** > MERKEALDI MERKATUA ARRASATEN

## Jendetza handia ibili da Merkemerkaurean

**KOMERTZIOAK** Debagoieneko 23 dendarik parte hartu dute merkatu horretan asteburuan Arrasaten

**KANPOTIK ERE** Eskualdetik ez ezik, kanpotik ere jende asko etorri da gurera, merkealdiek erakarrita > 09

**POLITIKA** > PRESOK

### Ibarreko zauritu bat Bilbon

81 urteko emakume bat zauritu egin zen Bilboko istiluetan > 05

**LANDA EREMUA** > DEBARROA

### Debarroa proiektua, Gipuzkoara

Gipuzkoan hedatzen lagunduko dute Batzar Nagusiek > 05

**AURKIBIDEA**

Debagoiena > 04-05  
Elkarrizketa > 06  
Iritzia > 08  
Herriak > 09-14  
Kirola > 15-22  
Kultura > 23-27  
Sailekuak > 28  
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29  
Berri-zakua > 30-31

**Barruan, Ointxe!**  
Arrasateko saskibaloi kirol elkartearen posterra



**ARAUAK** > GIDABAIMENA

### Hasi dira puntu galerak jakinarazten

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza orain hasi da gidariei galdu dituzten puntuak eta, hala bada, baimenaren galera jakinarazten. Dagoeneko, bi gipuzkoarrek galdu dute baimena. > 04

**SUPER AMARA**

**DENAK GUTXIAGO BALIO DU**

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua



TELE-ALARMA Larrialdi egoeran, beti soinean daramaten botoi bat sakatuta, etxean jasotzen dute laguntza, eta segurtasuna eta konpainia ematen dute profesional espezializatuek.

GOIENKARIA

**GIZARTE ZERBITZUAK** > DEPENDENTZIA DUTEN ADINEKOAK

# Adinak besteen mendeko bihurtzen gaituenean

**LEGEA** Dependenzia Legea onartuta dago, eta apirilean jarriko dute indarrean. Mendekotasun arazoak dituztenen zaintza sustatzea du helburu

**BALIABIDEAK** Ibarrean, etxez etxeko zerbitzua, eguneko zentroak eta zaharren egoitzak daude dependentziadunak artatzeko

**ARAUDI BATERATUAK** Udalek etxez etxeko zerbitzua eskaintzeko araudi bateratua dute Gipuzkoan eta, aurki, tele-laguntzarako ere egin nahi dute

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Etxe zaharrak itogin asko izan ei ditu, eta, adinean aurrera joan ahala, pertsoneri ere ajeak gailentzen zaizkie, sarritan beste batzuen mendeko bihurtzeraino, beste batzuen laguntza ezinbesteko izateraino, alegia.

Datu soziologikoei erreparatuz gero, zaharren herrialdea da Espainiako estatua. Imbersoren arabera, gora egin du 65 urtetik gorako biztanle kopuruak azken hamarkadetan, eta garapen horrek jarraitu egingo du. 1970ean, 3,3 milioi ziren adin horretatik gorakoak (biztanle guztien %9,7); 2000 urtean, 6,6 milioi (biztanleen %16,6) eta, aurreikusitakoaren arabera, 2026ra bitarteko datuei erreparatuta, ikus genezake

%21,6ra iritsiko dela urte horretan. Populazioaren zahartzea ez ezik, adineko pertsonen zahartzea delakoa ere ikusiko dugu datozen urteetan; hau da, 80 urtetik gorako nagusiak gehitu egingo dira eta, Imbersok aurreikusitakoaren arabera, 2016an, %6,1 80 urtetik gorakoa izango da. Populazioa zahartu ahala, mendekotasunak dituzten pertsonen kopuruak ere gora egingo du, adituen esanetan.

**MENDEKOTASUN LEGEA, AURKI**

Norbanakoen autonomia eta dependenzia arazoak dituztenen zaintza sustatzeko asmoz, Dependenzia Legea onartu zuten abenduan. Lege horren bidez, mendekotasun egoeran bizi eta euren

**Gizarte arretarako eskubidea izango dute mendekotasun egoeran bizi direnek**

**Ibarrean sei herritan daude eguneko zentroak eta zaharren egoitzak beste sei dira gurean**

kabuz moldatzeko gai ez diren herritarrek gizarte arreta izateko eskubidea edukiko dute. Horrela, dependenzia arazoak dituzten pertsonendako zentron eta gizarte zerbitzuen artean sare bat osatzea da, besteak beste, lege horrek aurreikusten duena.

Legea aurten, apirilean, jarri nahi dute indarrean, eta 2015erako erabat ezarrita egotea. Elgeta eta Arrasateko Udal Gizarte Zerbitzuetako Karmele Kortak eta Iñigo Garitanok esan digute lege horrek zein ondorio eta emaitza ekar ditzakeen jakiteko goizegi dela oraindik: "Lan aldetik, aldatketak ekarriko ditu, baina zein aldatketak ez dakigu, eta legea garatzeko zain gaude. Legeak hainbat zerbitzu berri ekarriko ditu men-

dekotasuna dutenendako, baina inork ez daki nola garatuko den, ezta guk, udaletako langileok, ere. Baina, batez ere, guri ekarriko dizkigu aldatketak funtzionatzeko moduan".

**ADINEKOAK, LUZAROAN ETXEAN**

Adineko pertsonak zaintzea arazo izaten da askotan familiendako, are gehiago euren kabuz moldatzeko gai ez direnean. Horretarako, senideen karga arintzeko, besteak beste, Udaletako gizarte zerbitzuek hainbat baliabide jarri dituzte herritarren eskura: etxez etxeko laguntza, ibarreko herri guztietan; eguneko zentroak Elgetan, Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Eskoriatzan; eta adinekoen egoitzak, Bergaran, Oña-

tin, Aretxabaletan, Eskoriatzan, eta Arrasaten dauden bi egoitzak, hain zuen ere.

Baliabide horien gaineko argibideak eman dizkigute Karmele Kortak eta Iñigo Garitanok, etxez etxeko laguntzari buruzkoak, batez ere. Beharbada, ezezagunena zaigun arren, gurean gehien erabiltzen den baliabidea da hori.

"Etxez etxeko laguntza zerbitzu bat da, eta mendekotasuna duten adinekoen euren etxeetan ematen zaie. Batetik, laguntza pertsonala ematen zaie, egunero-ko ekintzetarako behar duten laguntza: janzteko, garbitzeko... eta, bestetik, etxeko lanetan laguntzeko. Helburua da pertsona nagusi hori ahalik eta denbora gehien bere ingurunean egotea, bere etxean", azaldu digu Iñigo Garitanok.

Mendekotasunak dituzten adinekoak etxean ahalik eta eroso bizi daitezten, laguntza teknikoak jasotzen dutenak ere badira. "Oheak, garabiak, bainugelak egokitzea, helduleku bereziak ipintzea... eskatzen dute hainbatek. Diputazioko teknikari batek egiten du balorazioa, eta gero, baliabideak ezarri. Kasu batzuetan, gailuak utzi egiten dituzte: oheak, garabiak... ezindua etxean dagoen bitartean erabiltzeko, eta behar ez direnean bueltatzeko. Beste kasu batzuetan, obrak egiten dira etxebizitzak egokitzeko eta, diru sarrearen arabera, familiek laguntza jasotzen dute horretarako", esan digu Karmele Kortak.

## Dependentzia duten adinekoen laguntza pertsonala eta etxeko lanetarako laguntza ematen zaie

### Hainbat adinekoen etxean gertatzen zitzairen lehen janaria; orain, egoitzetan jaten dute

### Adinekoen egoitzetan, badago epe jakin bateko egonaldiak egiteko aukera ere

#### TELE-ZAINTZA

Etxean laguntza jasotzeko beste baliabide bat tele-zaintzarena da. Telefonoko linearen bidez aktibatzen den etxez etxeko laguntza zerbitzua da. Beti soinean dararamaten botoi bat sakatuta, etxean jasotzen dute laguntza, eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan, eta segurtasuna eta konpainia ematen duten profesional espezializatuek eramatean dute.

Iñigo Garitanok esan digu onartzeaz dagoela etxez etxeko laguntzarendako egin zen bezalako araudi bateratu bat, telelaguntzaren gaia udal guztiek modu berean koordinatzeko.

#### ETXEBIZITZA PARTEKATU

Laguntza behar dute mendekotasuna dutenek, baina badira euren kabuz moldatzeko gai diren hainbat adineko. Horiendako bada programa bat, hiri handietan batez ere, unibertsitateko ikasleekin etxebizitza partekatuko. "Arrasaten jarri genuen abian horrelako programa bat, baina ez zuen oihartzunik izan. Autonomoak diren pertsona nagusiek etxean hartuko zituzten ikasleak, eta, alojamentuaren truke, ikasleek laguntza eta konpainia eskainiko zieten. Baina ez du inork bere asmoa erakutsi programa horretan sartzeko", diosku Iñigo Garitanok.

#### JATORDUAK EGOITZETAN

Beste batzuetan, jatordua gertatzea izaten da arazorik handiena, eta horri ere aurkitu diote, neurri batean, irtenbidea. Gari-

tanoren esanetan, Arrasaten, lehen eskaintzen zen etxez etxeko laguntzaren baitan norbere etxean janaria gertatzeko aukera; "gero, aldaketak izan ziren, eta zerbitzu hori bakarrik jasotzen zutenei eskaini genien trukean egoitzara jatera joateko aukera; batzuk sartu ziren programa horretan eta jarraitzen dute".

#### ADINEKOEN EGOITZAK

Izan ere, egoitzak dira mendeko pertsonendako beste irtenbide bat. Euren etxetik irten eta beste adineko batzuekin bizi dira bertan. Euren logela daukate, eta gainontzeko espazioak partekatu egiten dituzte. Gainera, egoitza hauetan, mendeko zaintzaz arduratzen diren erizainak izaten dira oneko eurekin. Saiatzen dira adinekoak euren etxean bezala senti daitezten; horretarako, senide eta lagunak bisitatzeko jasotzen dituzte. Bertatik, gai diren artean eta laguntzarekin, irteteko aukera ere eskaintzen zaie, euren egokitutako jarduerak antolatzen dituzte...

Karmele Kortak azaldu digunez, egoitzetan badago epe jakin bateko egonaldiak egiteko aukera. "Urte guztian barrena egin daitezke horrelako egonaldiak, baina, gehienetan, etxeokoporrak hartzen dituztenean baliatzen dituzte. Hemengo egoitzak beteta daude, eta beste batzuetara bideratzen dira".

Norbere etxea erabat utzi gabe, egoitzen alternatiba izan daitezke eguneko zentroak ere. Egunez, gehienetan etxeokoporrak hartzen dituzte.

lanetan daudenean, mendekotasunak dituzten adinekoak zaintzen dituzte zentro horietan. Norbanakoaren zaintza ez ezik, mediku zerbitzua ere eskaintzen dute. Bertan daudenean, besteak beste ariketa fisikoak eta aisialdiko ekintzak egiten dituzte, eta baita atseden hartu ere. Garraioa eta janari zerbitzuak ere ematen zaizkie. Ondoren, lotara euren etxetara joaten dira, eta badira zentrorara eguneko ordu batzuetan bakarrik joaten direnak ere.

#### UDAL GIZARTE ZERBITZUAK

Horrelako baliabideak eskatzeko, Udaleko gizarte zerbitzuetara jo behar da, beharra gertuan sumatuz gero. "Baldintzak, ezaugarriak... araututa daude. Baldintza nagusia da mendekotasun egoeran egotea. Horretarako, balorazio medikoa eta soziala egiten dira. Beste kontu bat da kostuarena. Zerbitzua ez da doanekoa: zati bat erabiltzaileak ordaintzen du, eta bestea, administrazioak. Ordainketa pertsona bakoitzaren baliabideen arabera da. Baliabide ekonomiko gehiago daukanak gehiago ordainduko du, eta alderantziz. Laguntza kasu denetan jaso daitezke; baliabide asko edukitzea ez da traba, beharra edukitzea da kontua", dio Iñigo Garitanok.

*Adin batera ezker, disgustu gutxi, lana neurritz eta mokadugoxo-goxoa sarri-sarri, dio esaearak. Lanerako laguntza behar dute adinekoek eta, horretarako, goxo-goxo laguntzeko gertu dagoen jendea inguruan.*



Pedro Zumelaga, Iturbide egoitzako Amaia, Saioa eta Aitziber erizainekin.

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Pedro Zumelaga** > Iturbide egoitzako bizilaguna

Pedro Zumelaga arrasatearrak 92 urte ditu, eta orain dela hiru urte sartu zen Iturbide egoitzara emaztearekin, "ondo pentsatuta, gainera", esan digu. "Beharrak ekarri gintuen. Lehenago, emakume bat etortzen zitzaigun etxera laguntzer, a baina gauetan ere laguntzaren beharra geneukan, trabak ere baziren... eta Iturbidera etorri ginen".

Egoitzan sartu zenean, sano zegoen, baina bateko eta besteko ajeek moteldu egin dute Pedro. Hala ere, baikorra da oso: "Erizainak oso ondo portatzen dira; primeran zaintzen gaituzte eta gure behar guztiei erantzuten dute. Lekua polita ez da, beharbada, baina garbia bai; beraz, gustura nago. Sendagilea ere astean hiru aldiz etortzen da". Egoitzako bizilagunekin ere ondo konpontzen da, baina bere

gelan egotea du gustuko. "Musikarako zaleatasun handia dut eta opera, zarzuela... entzuten ditut. Aparailu modernoak dauzkat gelan, eta CD batean 100dik gora zarzuela dauzkat grabatuta. Telebista ere ikusten dut eta, noizean behin, baita irakurri ere, nahiz eta garai bateko irakurzaletasuna pixka bat galdu dudana", diosku.

#### BISITAK TARTEKA

Senideak kanpoan bizi arren, bisitan joaten zaizkio, baita lagunak ere. "Lehen, hiru lagun elkartzten ginen, eta Abaroara joaten ginen zerbait hartzera, baina ni, orain, ez naiz joaten". Iturbide orain bere etxea dela esan digu Pedrok, eta etxeko epeltasuna duela gogoko.



Zazpi urtez dihardu etxeko laguntzaile moduan Agurtzane Garai oñatiarrak.

LEIRE KORTABARRIA

**Agurtzane Garai** > Etxeko laguntzailea

Lagun baten bitartez hasi zen lanean etxeko laguntzaile modura, eta orain, Arrasaten dihardu adinekoak zaintzen. "Batez ere, adineko pertsonekin egiten dut lan, baina, orain dela gutxi, minbizia zuen gazteago batekin ere jardun dut. Norberaren garbiketara, janzen, etxeko lanetan... laguntzen diet eta, denbora apur bat izanez gero, eurekin berba egiten dut". Agurtzane Garaik gustuko du bere lana; hala ere, noiz edo noiz ikusten dio alde gogorra ere: "Adineko jendea bakardadean ikustea da nire lanaren alderik txarrena; eta zaindu izan ditudan hil badira, beti sumatzen da hutsunea. Hala ere, pertsona bakoitza mundu bat da, eta gustuko dut jende berria ezagutzea eta eurekin lan egitea".

Adinekoek laguntzaileak nola hartzen dituzten galdetuta, zera esan digu Agurtzane: "Hasieran, errezeloz hartzen gaituzte, ezagutu arte; konfiantza hartu arte, kosta egiten zaie gurekin berba egitea, gerturatzea. Beste batzuek, ordea, hasieratik etxekotzat gauzkate".

#### ETXEAN NAHIAGO

Askotariko jendea zaindu du Agurtzane eta gehienek egoitzara joan baino etxean bertan geratzea nahiago dutela diosku. "Batzuek ez dute inolako eragozpenik jartzen baina tokatu izan zait egoitzara joan beharra izan dutenak eta nahi ez dutenak; euren etxea bakarrik nahi dutenak, ez dakitelako egoitzan zerekin topo egingo duten".

ARAUAK &gt; PUNTU BIDEKO GIDABAIMENA

## Puntu galera jakinarazten hasi da Trafiko Zuzendaritza

Karlos Larringan puntuak berreskuratzeko autoeskolako ugazabaren esanetan, "eskutitz ofiziala ez jasotzean, jendea erlaxatu egin da"

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA  
Ezuste txarra jasoko dute laster hainbat debagoiendarrek; izan ere, gidatzen puntuak galdu dituztenei, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak horixe jakinaraziko die eskutitzez. Hala, bi gipuzkoarri kendu diete dagoneko gida-baimena puntu guztiak galtzarren. Joan den uztailetik hona arauak hautsi dituztenek notifikazio ofiziala jasoko dute laster; atzerapen handiarekin, baina.

Karlos Larringan autoeskola ugazabak hauxe dio: "Atzerapen handiarekin dabilta, baina orain hasi dira jakinarazpenak bidal-

tzen". Deba ibar osoan, Larringan autoeskolan bakarrik egin daitezke puntuak berreskuratzeko ikastaroak eta, ugazabak dioskunez, "uste dugu laster hasiko direla izena ematen".

### "JENDEAK BELDURRA GALDU DU"

Karlos Larringan esanetan, orain arte ez da halako eskolarik eman, jendeak ez duelako modu ofizialean puntu galeraren berririk jaso. Horregatik, "jendeak beldurra galdu du eta berriro lehengo ohituretara bueltatu da. Puntuzko gidabaimena ezarri zenean, jendea hobeto gidatzen hasi zen, baina gero, eskutitzak

jasotzen ez zituenez, erlaxatu egin zen", esaten du.

### NEURRI ZORROTZAGOAK

Oinezkoendako, txirrindulariendako eta lau gurpildun ziklomotorean ibiltzen direnendako ere, zigorrak daude araututa lehendik ere, baina, Carlos Larringan esanetan, horiek ere oraindik ez dira bete-betean indarrean jarri.

Bestetik, egunotan jakinara zi dute Gipuzkoan 10 lagun hil zirela iaz autoak harrapatuta, 2005ean baino sei gehiago. Estatu osoan ere, 2005ean 76 lagun hil ziren horrela. Hori ikusita, Espainiako Kongresuak oinezkoendako pasaguneak argiekin seinaleztatzea eskatuko dio Gobernuari. Halaber, 65 urtetik gorako gidariendako azterketa mediku zorrotzagoak eskatuko ditu.



JOSETXO ARANTZABAL

## Loterian, 175.000 euro Arrasatera

Poz-pozik zegoen Arrasateko Jesus Vidal ONCEko kupoi-saltzailea, egubakoitzeko zozketan saria banatu zuela jakitean: 35.000 euroko sari bana jaso duten bost kupoi saldu ditu, hain zuzen, 76.764 zenbakiarenak. Hiru hilabete daromatza Vidalek Portaloi inguruan kupoiak saltzen, eta badirudi ederki hasi duela lan hori.

GERTAERAK &gt; LAPURRETAK

## Autoan lapurreta egin zieten bi debagoiendarri eguaztenean Urkulun

Autoa aparkatuta utzi zuen bizilagun batek Urkulun eta, bueltan, bertatik baliozko hainbat gauza kendu zizkiotela ikusi zuen



Autoak Urkulun. JOSETXO ARANTZABAL

L.K. &gt; ARETXABALETA

Bi debagoiendarri lapurtu egin zieten joan den eguaztenean, otsailak 21, Urkulun.

Debagoiendar bat Urkulura joan zen egun hartan, antxintxikan egiteko. Autoa aldapan beheara dagoen aparkaleku ilaran utzi zuen aparkatuta, hainbat gauza barruan zeudela; tartean, dirua, kreditu-txartela eta sakelakoa.

Bere ariketatik bueltatu zenean, norbaitek kopilotuaren atea bortsatu eta ostu egin zion konturatu zen. Beste bizilagun bati ere gauza bera gertatu zitzaion egun berean.

### ERTZAINZAK DIOENA

Halakoak ohikoak diren galdetuta, Ertzaintzak ez digu konfirmatu, eta Aretxabaleako Udaltzaingoak ere ez du horrelako lapurreta gehiagoren inguruko berririk; hala ere, herritar asko, batez ere Aretxabaleakoak, kezatu dira Urkulu inguruan egoten diren "lapurreta boladetaz".



ESKAINZA Bildutakoei HUHEZIkren eskaintza azaldu zieten, besteak beste.

LARRAITZ ZEBERIO

HEZKUNTZA &gt; ATE IREKIAK MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

## Iaz baino askoz jende gehiago, HUHEZIk ate irekien egunean

HUHEZI izan da atea irekitzen lehen fakultatea; laster, Politeknikoak eta Eteok egingo dute

L.K. &gt; ESKORIATZA

Ondo hasi ditu Mondragon Unibertsitateak bere eskaintza ezagutarazteko ate irekien jardunaldiak; izan ere, joan den egunean egin zuten lehenengo jardunaldia, Eskoriatzako HUHEZI fakultatean, eta iaz baino bisitari gehiago izan zituzten, Iñigo Ramirez de Okariz antolatzaileak dioskun moduan:

"55 bat lagun etorri ziren, iaz baino 24 bat gehiago. Lehenengo jardunaldia izan eta uste baino jende gehiago etortzea oso pozgarria da guretako", esan digu.

Batxilergoko ikasle, guraso eta lagunekin, bi orduko saioa egin zuten: ordu eta erdian, aurkezpen orokorra egin zuten, eta gainerako 30 minutuetan, bisita gidatua.

Ramirez de Okarizek dioenez, bisitariak "harrituta" gertzen dira, batez ere, Mendeberrirakaskuntza sistema berria gertutik ezagutzean.

### ARRASATEN ETA OÑATIN ERE

Orain hurrengo, Goi Eskola Politeknikoak irekiko ditu atea, martxoaren 8an, hain zuzen; gero, Eteoren txanda izango da, martxoaren 17an; eta hilaren 29an, berriro HUHEZIk. Jardunaldi gehiago egongo dira ekainera bitartean.

&gt; GERTAERAK

## Oñatiko 26 urteko gizona atxilotu du Ertzaintzak, ustez sexu-erasoa egiteagatik emakume bati

Bergarako Ertzain-etxeke ertzainek AG.Z.G 26 urteko gizonetako atxilotu zuten egubakoitz goizean Oñatin, sexu-eraso delitu bat egotzita. Behin dagozkion polizia-eginbideak amaituta, atxilotua Bergarako epaitegiaren esku geratu zen.

Gertakariak otsailaren 17an, zapatua, izan ziren, goizaldean, Oñatin. Salariariak, emakumeak, dioenez, aurrez taberna baten ezagututako gizon batekin topo egin zuen, eta gizonak etxera gonbidatu zuen. Emakumeak soilik lo egiteko asmoa zuela esan zion. Emakumea arropa eta guzti etzan zen, eta lo geratu zen. Esnatu zenean, gizona gainean sexu-erasoa egiten zeukala nabaritu zuen. Ihes egitea lortu zuen eta salaketa ipini zuen.

POLITIKA > PRESOEN ALDEKO BI EKINTZA

# Presoen aldeko lanuztea eta agerraldia egon ziren; arrasatear bat zauritu zen

Maria Murgoitio 81 urteko arrasatearrak aldaka apurtu zuen zapatuko istiluetan

Egubakoitzean, ordubeteko lanuztea egin zuten hainbat enpresa eta erakundek

A.G. > BERGARA

Arrasateko 81 urteko Maria Murgoitio, Jose Gabriel Urizar presoaren ama, zauritu egin zen herenegun, zapatua, Bilbon egon zen agerraldi istilutsuan. *Hitza eta erabakia, lurraldetasuna eta amnistia* leloarekin deitutako agerraldia debekatu egin zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak, eta ertzainak agerraldia desegiten hasi ziren. Horren ondorioz, 20 lagunetik gora zauritu egin ziren, tartean Maria Murgoitio.

Arrasatearra erori egin zen ertzainaren erasoaldi baten, bultzadekin, eta aldaka apurtu zuen.



EKITALDIA Protesta ekitaldia egubakoitz eguerdian Bergaran.

OIHANA ELORTZA

## LANUZTEAN, DENETARIK

Denetariako jarraipena izan zuen egubakoitzean Etxeratik Iñaki de Juanaren alde deitutako ordubeteko lanuzteak Debagoiengan. Hala, hainbat enpresa, erakun-

de eta komertzioak bat egin zuten deialdiarekin; beste hainbatek, berriz, ez, eta beste banaka batzuek norbere esku utzi zuten erabakia.

Eguerditik 13:00etara arte lanuztea egin zutenen artean hauek daude, besteak beste: Aretxabaleta, Bergara, Antzuola eta Gatzagako udal langileak; Fagor

Elektragailuak, Elektronika, Elektratresnak eta Arrasate; Uribesalgo; JMA; Fagor Industrial; Ulma Packaging eta Polimero; Candy; Geysler-Gastech; Eskola

Politeknikoko langile eta irakasleak; UNED; Goiena; Servimasa; Goizper; Oerlikon-Balzers; Txanxiku ikastolako langileak eta Batxilergoko ikasleak, eta abar.

BAKEA > OSOKO BILKUREN ARETOAN

## Etzi, eguaztena, izango da Bergaran bakearen foroa

25 herritar inguruk hartuko dute parte, eta bakeaz duten iritzia emango dute

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Eguaztenez egingo dute bakearen aldeko foroa Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan. 25 herritar inguruk hartuko dute parte foro horretan, eta galdera honi erantzun dute: Egungo egoera honetan, zer ekimenek lagun dezakete bakeari beste aukera bat ematen? Herritar bakoitzak bake prozesuaz duen bere iritzia emango du, eta iritzi horiek lehendakariari helaraziko dizkio gero alkateak.

## HERRITARREN IRITZIA

Jaurrlaritzak eta Eudelek elkarrekin abian jarri duten ekimena da bakeari buruzko udal

foroa egitea. Helburua da herritarrek bakearen inguruan duten iritzia jasotzea.

Foroan parte hartuko duten herritarrek herriko elkartei eta zinegotziei galdetuta aukeratu dituzte, eta zerrenda konfidentziala da. Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak azaldu duen moduan, "zinegotzi guztiak eta herriko hiru elkartetako (Mendia Bizirik, Bedelkar eta Bergarako Kirol Elkartea) ordezkariek gonbidatu nituen bilerara batera. Bakoitzak bospasei herritarren izenak proposatu behar zituen fororako". Alkateak berak bidali die foroan parte hartzeko gonbidapena zerrendan jaso duten herritar bakoitzari.

Legazpin egin zuten lehen bake foroa, eta "primeran aterazena", Eudelen esanetan. Bergarako Debagoiengan egingo duten bakarra izango da.

LANDA ARLOA > DEBARROA SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUA

## Debarroa proiektua Gipuzkoa osoan hedatu nahi dute

Batzar Nagusien babesa lortu du Debarroa proiektuak, eta arduradunek agerraldia eskatu dute erakunde horretan

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko eta Debarreneko Landa Garapenerako elkarteek sortutako *Debarroa, menditik itsasora* kanpainak Batzar Nagusien babesa jasoko du. Helburuetako bat da landa eremuarekiko sentsibilizazio proiektu hori Gipuzkoa osora hedatzea. Zelan egingo den zehaztea da hurrengo lana.

Bi elkarte horietako ordezkariek agerraldia eskatu dute Batzar Nagusietako Nekazaritza

Batzordearen aurrean, proiektua azaltzeko.

Horrez gain, Artamanekin batera, ohitura onen gida-liburua prestatzen ari dira, eta Debagoieneko eta Debarreneko etxe guztietako posta-kutxetan banatuko dute.

## OSO ERANTZUN ONA

Debarroa proiektua gurean aurkeztu zenetik, ekintzetako asko egin dituzte, eta oso pozik daude arduradunak, Deba Garaia landa garapen elkarteak Agurtzane Diaz Urribidek dioskun moduan: "Ikasmaterialak oso harrera ona izan du eskoletan, eta ezustea izan dugu: Lehen Hezkuntzarako materiala da, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako ere eskatu digute. Udal Euskaltegietan ere zabaldu dugu".

Landa jarduerak ezagutzeko ibilbideek ere harrera aparta

izan dute: "75 antolatu ditugu, eta erdiak egin dituzte. Ikastetxe guztiek oso iritzi ona agertu dute", esaten du Diaz de Urribidek. Ibilbide horietan, landa arloan egiten diren denetariako ogibideak erakusten dituzte: talogintza, okintza, esnegintza, arrantza...

Horrez gain, lehiaketak, hitzaldiak... ere antolatu dituzte. Esaterako, bihar, martitzena, berbaldia egingo dute. Unibertsitateetan eta Lanbide Heziketa zentroetan egingo dituzte.

## ENPRESEKIN

Deba ibar osoko enpresa eta kooperatibekin 80 bat elkarrizketa egin dituzte, haiek ere Debarroan inplikatu zitezten. "Hasieran, uste genuen landa arlo oso urrutikoa zela enpresendako, baina denak laguntzeko prest agertu dira, eta horretan lanean jarraituko dugu", dio Diaz de Urribidek.

Beatriz Zabalondo elgetarrak kazetaritza ikasi du, besteak beste, eta zuzentzaile lan egin du. Horrez gain, itzulpenak ere egin ditu. Gaur egun, Komunikazioaren Teoria irakasten du HUHEZIn, eta hizpide da, bate-tik, telebista digitalaren gaineko jardunaldiak antolatu dituen taldeko kide delako; eta, bestetik, EIZIE elkarteko presidente berria delako

Beatriz Zabalondo > HUHEZIn irakaslea eta EIZIEko presidentea

# "Digitalizazioa ahalegin handia da tokiko medioentzat, baina onerako da"

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean, Informazio eta Komunikazio Departamentuko buru da Beatriz Zabalondo (Elgeta, 1961). Komunikaldiak jardunaldiak egingo dituzte martxoaren 1ean, eta bera da antolatzaileetako bat.

**Komunikaldiak jardunaldieta-ko lantaldeko kide zara...**

Bai. Komunikaldiak jardunaldia gure departamentuak antolatzen duen ekintza bat da, aurten bigarren urtez. Neuri tokatu zait hori jendaurrean erakustea, baina talde bat dago hori guztia antolatzen.

**Tokiko telebista digitala euskaraz da aurtengo gaia. Zergatik aukeratu duzue hori?**

Gure helburuetako bat da mundu profesionala eta Unibertsitatea gerturatzea, beti komunikazio gai bat ardatz hartuta. Aurten, pil-pilean dagoen gai horri heltzea erabaki dugu. Abenduan, horren gaineko dekretua publikatu zuen Jauralaritzak, eta tokiko telebistak lehiaketako ple-guak eta betetzen dabilta. Gertutasun handiko gaia da.

Bestalde, gure ikasle askok tokiko hedabideetan jardungo dute, eta mundu profesional horren berri aurrez aurre ematea garrantzitsua da.

**Inguruko tokiko telebisten-gan ardura igarri duzue, digitalizazioa dela-eta?**

Orain arte, telebista asko arautu barik egon da, eta azkenean etorri da arautzeko bidea, lehiaketaren bitartez. Lehiaketa oso bide estua da, baina denendako onuragarria izango da, lege barruan kokatzen den leku bat hartuko dutelako. Digitalizazioak ekarriko duen aldaketa handia izango da; denak derrigortuta daude digitalera pasatzera, eta tokiko telebistak ere bai. Legeak bi egoeratan harrapatu ditu, araua bete behar dutelako, eta digitalizaziora pasatzera derrigortuta daudelako. Horrek telebisten barruan kezka handia sortu du, faktore ekonomikoengatik, eta lege horrek ere derrigortzen dituelako lau orduko emisiora. Hori, tokiko telebistendako, ahalegin handia da. Bestalde, hizkuntzaren kontua dago: nola arautzen da euskara horren barruan?

Horiek guztiak ahalegin handiak dira tokiko telebistendako, eta indarrak batu guran dabilta.



Beatriz Zabalondo, HUEZI fakultatean, Eskoriatzan.

JOSETXO ARANTZABAL

**Azkenean, onerako izango dela uste duzu, adibidez, GOITB bezalako telebista batendako?**

Nik uste dut baietz. Ezereztik halako enpresa bat sortzeak ahalegina eskatzen du, baliabide teknologikoetan eta pertsonaletan. Apustu handia izan da, eta balio handia dauka. Orain ere salto handia eskatzen da, eta Goienarendako aukera ona da, baina ahalegin handia eskatuko dio. Hala ere, jendea ilusio handiarekin ikusten dut, eta pentsatzen dut horrek asko lagunduko duela, sinistu egiten dutelako proiektu horretan.

**Euskarazko telebistek kate askorekin lehiatu beharko dute...**

Beste erronka handi bat da hori. Batetik, teknologian eta maila komertzialean lehiatzea ekarriko du digitalizazioak. Baina hori dena euskaraz egin behar izateak indarrak askoz gehiago ahultzen ditu, erdarazko medioek daukatelako dena eskura.

LEGE BARRUAN

**"Digitalizazioarekin tokiko telebistek lege barruan kokatzen den leku bat hartuko dute"**

TELEBISTAK LEHIAN

**"Aukera izan liteke 60 telebista emititzen hasteko, eta euskarazko telebistendako, erronka handia izango da hori"**

INTERNET

**"Zorionez, Interneteko trenera euskara beste hizkuntzen parera igo da"**

Jauralaritzak 15 barruti izendatu ditu, eta bakoitzean lau telebista jartzeko aukera. Hortaz, aukera izan liteke 60 telebista emititzen hasteko. Euskara hutsetik apustua egiten dutenek oso zail daukate besteekin lehiatzeko.

**Teknologia berriek, oro har, zelan eragin dute euskaraz?**

Zorionez, Interneteko trenera aukera beste hizkuntzen parera igo da. Oso gutxi gara, eta hor eragiteko indarra bere txikitasunean neurtu behar da. Internetek daukan gauza ona da mundu osora zabaltzen dela aldi berean.

Tokiko telebistekin gertatzen dena da, gaur egun, edukiak ekoiztea dela garesti. Telebistak duen erronka nagusi bat da edukiak sortzea.

**Tokiko telebistetan, euskara zuzena, jatorra... da?**

Uste dut telebista generalisten hizkuntza euskara batua izan behar dela, baina tokikoetan, duda barik, herrietako euskal-

kiak bultzatu behar dira. Oso garrantzitsua da hiztun onak edukitzea, hizkuntzaren alderdi hori ondo zaintzea. Telebistek eredarriak izan behar dute.

**Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteko (EIZIE) presidente berria zara.**

Ni izendatu naute eta ohore handia da, baina talde lanak erosten du aurrera elkarrekin. Zuzendaritza berritzen denean, aurreko taldea ez da guztiz desegiten. Guk berriei bidea irakatsiko diegu. eurek aurrera egin dezaten.

**Zelan dago itzulpengintza?**

Itzulpengintzaren osasuna oso ona da. Askok itzultzen da, eta maila onean. Zuzentzaileak ezin dira ahaztu, eta interpreteak ere gero eta gehiago dira, gizartean gero eta gehiago eskatzen delako, batez ere inmigrazioa dela-eta. Gure lanbidearen osasunaren adierazgarri on bat da Gasteizen dagoen itzulpengintzaren eta interpretazioaren lizentziatura.

## oharrak eta deialdiak

**BERGARA**  
> **Matrikulazioa zabalik San Martin Agirre ikastetxean**

Gaur, astelehena, eman diote hasiera matrikulazio kanpainari. Ordutegia da 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara. Epea martxoaren 9an itxiko dute.

**ELGETA**  
> **Jai batzordeak batzarreko dei egin du**

Herriko jaiak prestatzen hasteko lehenengo batzarra deitu dute. Hilaren 28an, eguaztena, izango da, udaletxean. Interesa duten herritar guztiek parte har dezakete.

**ARRASATE**  
> **Ezker Abertzaleak datoren lau urteetako ildoak aurkeztuko ditu**

Ildo nagusien proposamena aurkeztuko du. Martxoaren lehenengo ildoa da hori, 19:00etatik 21:00etara, Arrano elkartearen herriartean. Herriartean partehartzearekin zehaztutako ildo horien gaineko iritzia eta proposamenak ere jaso nahi dituzte.

**ARAMAIO**  
> **Dirulaguntzak eskuratzeko deia herriko taldeetara**

Udaleko Kultura eta Euskara sailek urteko dirulaguntzak banatuko dizkiete herriko taldeei kirol, jai, kultura... eta bestelakoak antolatzeko. Martxoaren 20a da muga.

eguna. Informazio gehiago Aramaioko Udalerari.

**DEBAGOIENA**  
> **Baserri ingurunean sortutako plastikoa batuko dute bihar, hilak 27**

Ohiko lekuetan laga beharko da plastikoa, arratsaldean. Lekuren bat aldatu nahi izanez gero, deitu: 943 76 25 47 zenbakira.

**ELGETA**  
> **Korrika batzordeak batzarreko dei egin du**

martxoaren lehenengo eguna, izango da batzarra, 19:30ean, udaletxean. Martxoaren 26an egin nahi dituzten ekitaldiak zehazteko da batzarra.

**ELGETA**  
> **Ikastaro gehiago KZgunean**

> *Zure kanala sintonizatu delako ikastaroa egingo dute hilaren 28an. 17:00etatik 18:00etara izango da, euskaraz.*

oñati

> **Spinning monitore agiria lortzeko ikastaroa antolatu dute nahi duten guztiendako**

Martxoaren 17an izango da, 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era, Zubikoan. Debarroko kirol zerbitzuetako bazkideendako 55 euro da ikastaroaren prezioa; 65, gainerakoendako. Taldeak aurrera egiteko gutxienez zortzi lagun beharko dira. Izena emateko jo ibarreko edozein herritako Kirol Zerbitzura.

943 25 05 01  
goienkaria@goiena.com

Informazio gehiago: 943 79 94 44.

**ARRASATE**  
> **1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute**

Martxoaren 3an egingo dute bazkaria urte hartan jaiotakoek. 12:15ean meza izango dute San Juan Bataiatzailearen parrokian eta 14:30ean bazkaria, Bittori erretsean. Izena emateko, deitu 943 79 80 08 telefono zenbakira.

**ARRASATE**  
> **Urpekaritza ikastaroa egingo du K-Sub zentroak Musakolan**

Urpekaritza ikastaroa apirilaren izango da. Ikastaroaren aurretik, baina, bataio-probaldia egingo dute. Martxoaren 10ean izango da, 17:00etan. Izena emateko jo Musakola kiroldegiko harrerara martxoaren 7a baino lehen. Izena ematen duten lehenengo 16 lagunekin itxiko dute izenematea.

**DEBAGOIENA**  
> **Kilometroen aldeko atarreak ateratu dituzte**

Aranzadi ikastolak Kilometroak 07 jaialdirako porra antolatu du produktuei baterik ota-rtzeko zozketaz. Debagoieneko taberna, denda eta bestelako komertzioetan jarri dute porra hori bi euroren truke.

**DEBAGOIENA**  
> **Etxean konposta egiteko kanpaina hasi du abian Mankomunitateak**

Kanpainan parte hartu nahi dutenei konpostagailua banatuko zaie. Parte hartu nahi duenak martxoaren 9ra arte du izena emateko aukera, Mankomunitatearen 943 79 33 99 telefonoan, 08:00etatik 14:00etara. Parte hartzeko ezinbestekoa da lorategia, baratza edo lur zatitxoak. partehartzaileek ikastaroa egin beharko dute.

**ANTZUOLA**  
> **Bidaiari gisa ditugun eskubideak ezagutzeko ikastaroa KZgunean**

Ikastaroa martxoaren 8an izango da, 11:00etatik 13:00etara. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Bestalde, martxoaren 22an Komunikatu posta elektronikoaren bidez izeneko ikastaroa egingo dute. Informazio gehiago 943 79 94 44 zenbakira 09:00etatik 13:00etara, edo idatzi [antzuela@kzgunea.net](mailto:antzuela@kzgunea.net) helbidera.

## etxeko leihotik



Inazio Arregi > Goienako zuzendari nagusia

## TTD eta LTD akronimoak

Hizki salda ederra irakurlearentzat. Ez da erraza horien esanahia ezagutzeko adituak ez direnentzat. Gauzak argitzeko asmotan, HUHEZIK euskara eta TTDa -ez LTDa- aztertuko dituen mintegia antolatu du bere ikasleentzat. Interesgarria oso, Tokiko Telebista Digitalen (TTD) legediak Euskal Herrian eragin ditzakeen aldaketak aztertzeko.

Komunikazio esparru berri bat, gertuko, arautuz aukera berriak ari dira sortzen. Orain arte ez zaio honi jaramon handirik egin. Ez da aztertu hedabide berri honen potentziala ez bada talde txikitan eta adituen foroetan.

Eszenatoki berriak aldaketa sakonak eragingo ditu gaur egun jardunean ari diren telebistetan: kalitate hobea eta eskaintza aberatsagoa sumatuko ditu ikusleak bere eskualdeko telebista pizterakoan. Eta euskara gehiago.

Telebistek berriz, lan ildo berriak urratu beharko dituzte sortuko diren kate berriak eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko. Orain arte erdaraz aritu direnak euskarari tokia egin beharko diote.

Garai berriak. A! LTDk lurreko telebista digitala esan nahi du, nahiz eta airez banatzen dena izan.

> **Donostiatik dator notiziya Donostiako Udalak erabaki du tokiko telebista bat sortzea. Egunean lau orduz emitituko du, eta horren erdia euskaraz izango da. Bejondeiola!**

> **Nerbioak laster azalduko dira. Hiru tokiko telebista ari dira Donostian. Udalarenarekin lau. Beste askok dute lizentzia eskatzeko asmoa, baina lau baino gehiagorentzat lekurik ez. Nortzuk kanpoan?**

**"Kalitate hobea sumatuko du ikusleak bere eskualdeko telebistan"**

## debagoiendarrak kanpoan

Erramun Aranguren > Antzuola

# "Argazkilaritza munduan aurrera egiteko etorri nintzen Gasteizera"

**ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA**  
Erramun Aranguren emazte Estibaliz Larrañaga eta seme bikiekin joan zen Gasteizera 80ko hamarkadan. Ordutik, bertan bizi da; hala ere, Antzuolara bisitan etortzeko ohitura baduela aitortu digu.

**Noiz joan zinen Gasteizera bizitzera?**

1982an etorri ginen, orain urte dezente. Hala ere, oraindik ez naiz guztiz arabar egin; Antzuolako izaten jarraitzen dut.

**Zerk bultzatu zintuen herria utzi eta Gasteizera joatera?**

Lan kontuengatik izan zen. Nik argazkilaritza aritu gura nuen eta, orduan, Antzuolan ez zegoen mundu horretan lan egiterik. Beraz, andreak eta biok Gasteizera etortzea erabaki genuen.

Lehen, Antzuolan, estudio txiki bat geneukan. Garai hartan, argazkilaritza ikastaro asko antolatzen ziren, baina Antzuolan ez zegoen aukerarik argazkilaritza aurrera egiteko, eta Gasteizera etorri nintzen.

Etorri nintzenean, lokala erosi genuen, Gasteizko auzo batean; gaur egun, lokal horretan, laborategia eta inprimategia dauzkagu. Hiri erdian, berriz, beste denda bat daukagu; han, estudioa dago.

**Siberia-Gasteiz deitzen zaio Arabako hiriburuari, baina aurtengo neguan, behintzat, ez duzue hotzik pasatu!**

Bai, aurten ez dugu hotzik izan. Lehengunean, mendi buelta bat ematen izan nintzen eta haize nahasketa arraroa zegoen; hai-



GOIENKARIA

**Gasteizera lanera joana**  
'Erramun' izena duten bi lokal ditu antzuolarrak. Bat argazki estudioa da eta bestea laborategia

zeak Gorbeia aldetik eta hegoaldeko jotzen zuen.

**Gasteizen, Debagoieneko jende mordo bizi da. Baduzue elkartzeko ohiturarik?**

Ez, ez daukagu ohitura hori. Ni, noizean behin, Antzuolara joaten naiz lagunekin elkartzera, baina hori ere gero eta gutxiago egiten dut.

Baina egia da Gasteizen, bertakoekin ez daukagula hartu emanik; ez gara elkartzeko.

**Nola ikusten da Antzuola Gasteiztik?**

Ni beti egon izan naiz herri giroan oso sartuta; Antzuola, niretako, emozionalki oso garrantzitsua da. Ez da jaioterria bakarrik; niretzat, zerbait gehiago ere bada; harremanari eusten diot.

**Zenbatean behin egiten duzu herrira bisita?**

Orain, oso gutxi joaten naiz; gero eta gutxiago. Hori bai, batzuetan, ama etortzen zaigu Gasteizera bisitan.

**Eta herriko zer igartzen duzu faltan Gasteizen?**

Lagunartean egotea igartzen dut faltan: afalosteko giroa, lagunekin kantuan aritzea... Hori hemen ez daukat, eta ikaragarri sumatzen dut horren falta.

**1982an, Gasteizen, nolako giroa aurkitu zenuen?**

1982an, Gasteizen ez zegoen euskal giroa; guri *los vascos* deitzen ziguten. Ordutik, baina, gauzak asko aldatu dira. Gipuzkoa aldetik, eta baita Debagoienetik ere, jende asko etorri da.

## kale inkesta

## Baduzu joerarik Oscar saria jaso duten filmak ikustera joateko?

Enrike Aranburu  
Langilea  
Bergara

Bi ume dauzkat eta apenas joaten naiz zinemara. Beraz, joaten naizenean parean tokatzen den filma ikusten dut. Oscarren kontua prentsatik jarraitzen dut. Gainera, Bergaran ez daukagu zinema aretorik.

Maripi Jauregi  
Langilea  
Antzuola

Ez daukat ohiturarik. Zinemara oso gutxi joaten naiz orain, eta gainera zaletasun handirik ere ez daukat zinemarako. Oscarren kontua prentsatik jarraitzen dut, baina ez da erakartzen nauen gauza bat.

Arantzazu Salaberria  
Etxekoandrea  
Bergara

Zinemara gutxitan joaten naiz eta, aretoa itxi zutenetik, gutxiago. Beraz, Oscarretako irabazleak zein diren ez dut kontuan hartzen. Aurtengo gehiago jarraitu dut sariketa Almodovarren *Volver* filmarengatik.

Carlos Cordoba  
Langilea  
Gasteiz

Ez. Zinema asko gustatzen zait, baina ez diet Oscarrei erreparatzen, nire gustuen arabera aukeratzen ditut filmak. Gero eta gutxiago joaten naiz zinemara, baina ikusi dudana azken filma *Manual de amor* da.

## zorroztailea



Jabier Arantzeta

## Berriak ematen

"Gipuzkoa lurralde txikia da transzendentzia politikodun gai bat luzaroan ezkutatu ahal izateko. Politikoei eta komunikabideei, EAJ-ko Gipuzkoako Ahaldu Nagusitarako bere kandidatura publiko egin eta gutxira izan zuten Jon Jauregi buruzko txostenen berri."

Noticias de Gipuzkoa >  
2007-02-24



Gaurkoan modako gaia ekarri dut, baina ez naiz ibiliko Jauregi jaunaren etxeei buruz, edo Haziendari egin dion edo egin ez dion iruzurrari buruz; izan ere, etxeren bat edo beste Haziendari ez deklaratzeko gauza nahiko normala da Gipuzkoan gaur egun, beraz, iruzur egin badu ere, eta kontraktorik frogatu arte ez duela egin pentsatu beharra dago, bekatu txikia da hori. Beste bat izango da gaurko nire gaia.

*Noticias de Gipuzkoa* egunkariak dienez Ahaldu Nagusitarako bere kandidatura publiko egin zenetik "politikoei eta komunikabideetako profesionalak" bazeukaten txosten horien berri. Filtrazioen bat izan ei da, hau da, *jarixoa*. Ez didazue esango *jarixoa filtrazioa* baino askoz ere berba politagoa ez denik. Eta *jarixodun* hori joan ei da bere *jarixo* eta guzti handik isuritakoa jasotzeko prest dagoenarengana, eta honek bestearen hondakin guzti hori jaso eta horren berri emango digu bere eginkizuna hori delakoan.

Eta hortik aurrera denek jardungo dute informazio horren edukiaz balorazioak egiten, baina badira, aurretik egin beharreko beste balorazio batzuk. Hasteko, oso kontutan eduki behar dira *jarixodunaren* arrazoiak. Berezkoa du *jarixoa* edo bat-batean etorri zaio? Ez dago oso argia izan beharrik izorratzeko gogoia izan dela nagusi pentsatzeko, eta inor izorratzera hain garbi datorrenari, beste barik sinistea ez da batere logikoa. Logikoena izango zen *jarixoarekin* etorri dena, bere *jarixo* eta guzti txarraren salara bidaltzea.

Bigarren, zer pentsa ematen du *berri* hori izan eta hainbeste denbora pasatzeak hori publiko egin orduko. Zergatik da gaur notizia eta ez abenduan? Honen erantzuna asmatzea ere ez da zaila: komunikabide horrek izorramendu handiagoa sortzen du orain eta honek ere, aurrekoak moduan, hori du bere helburu nagusia: etsai politikoa izorratzea; ez pentsa komunikabideen zeregin nagusia informatzea denik, aspalditxoan erakutsi digute eta, euren zeregin nagusia batzuk goratu eta besteak izorratzea dela. Horrela bada, zerbaiten berri ematen digutenean lehenengo-lehenengo pentsatu beharrekoa da nork ematen digun zeren berri eta zergatik.

"Inor izorratzera datorrenari beste barik sinistea ez da batere logikoa"

"Komunikabideen zeregina batzuk goratu eta besteak izorratzea da"

## irakurlearen txokoa

943-25 05 02

goienkaria@goiena.com

## DEBAGOIENA

## &gt; Kontsumitzailearen bulegorik ez

Irakurle batek deitu digu esateko kontsumitzailearen bulego baten falta igartzeko duela, eta ea Debagoiengan zergatik ez dagoen zerbitzu hori. "Edozer gauzatarako, bulego gertuena Eibarren dago. Gogoratzen naiz lehen Aretxabaletan bazegoela bat, baina itxi egin zuten. Uste dut Debagoiengan ere zerbitzu hori behar eta merezi dugula", esaten du berak.

## OÑATI

## &gt; Gidariak edonon geratu

Haserre dago oñatiar bat: "Gero eta sarriago gertatzen zait, autoarekin herritik ibili, eta aurreko gidaria errepide erdi-erdian gertatzea, zer, eta bateren batekin berrikerian hasteko! Lehengoan, bost bat minutu egon zen bat lasai-lasai kontu-kontari atzeko autoei kasurik egin gabe". Irakurleak gogorazi du gidariak ezin direla edonon geratu, "are gutxiago berrikerian egiteko, batez ere beste gidariei traba egiten dietenean".

## BERGARA

## &gt; Barrakak sasoiak kanpo

Ama bergarar bat kexu da Fraiskoizuri plazan barrakak eta txurro-postua jarri dituztelako, eta "nik dakidala, hemen ez da jairik". Bere esanetan, "umeez hara joatea eskatzen dute eta, sasoiatik kanpoko gastua izan arren, ez litzaidake inportako, ez bada lasai egoteko eta jolas egiteko lekua mugatu egiten dutelako".

## usteak uste

Jon Berezibar

## Tenperatura altuak

Kalean apurketak, bat-bateko errebolta txikiak, Kebab saltokiak eta merkealdien sukarra, beste askoren artean. Mutur oker eta luzeak ikusten dira herrian; auto ilara luzeetan kea ez da bakarrik ihes-hodietatik irteten eta antza udal-pasilloetan ez ei da giro. Ezta kalean ere. Asfalto azken asteotan gori-gori dugu Arrasaten, eta ez aspaldiko otsailik beroena jasaten gabiltzalako. Eguratsaren igarleek diote urterik beroenetakoa izango dugula aurtengoa. Badirudi maiatzera arte behintzat termometroak ez direla izango sutan ibiliko diren barrakak. Txinatarrek, gorri edo ez, txerriaren urteari ekin diote, aurtengo jaiotakoek bizitza oparoa izango omen dute aurretik. Bejondeiela, aurrekoak zapuzten ez diegun bitartean.

## Goienkaria

Argiraratzailera Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Irati Agirreazaldegi, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Edurne Burgaña Oinarrizko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano, Oxel Arrieta Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

## EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Oñati Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAK 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Postea-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tira: 5.000 ale

## Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako  
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13  
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**  
Argentinako Sunchales herriko ordezkariak etorri dira, eta senidetu egingo dira bi herriak gaur > **10**



> **ARETXABALETA**  
Apotzaetxebarrin bi etxebizitza bloke egiteko baimena lortu du Bruesa enpresak > **13**



> **ARAMAIO**  
Iker Agirre bosgarren Arabako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketan > **14**

## Jendea eta sekulako beroa izan dira Merkemerkauko protagonistak

Eskualdean azoka antolatu duten lehenengo aldia izan da asteburukoa

23 saltokik parte hartu dute, eta biltokian zutena prezio merkean saldu dute

### EDURNE BURGAÑA > ARRASATE

Zapatuan eta domekan, Merkemerka egin dute Uarkape pilotalekuan. Arrasate, Bergara eta Aretxabaletako 23 komertzio eroran dituzte bertara euren dendetako produktuak. Arropa prezio merkean lortzeko aukerak jende asko eraman du Arrasatera. Jendea eta beroa izan dira bi protagonistak.

### BERRIKUNTZA

Marga Garmendia Enplegu eta Garapen Ekonomikoko zerbitzuko Udal teknikariaren esanetan, "antolaketa lan handia egin dugu, eta helburua jendea bertara joatea izan da. Azoka eskualdeko erosle guztiei zuzenduta egon da: denontzako egon da zer edo zer".

23 denda zeuden bertan: 16 Arrasatekoak, bost Bergarakoak eta beste bi Aretxabaletakoak, gehienak, arropa eta zapata dendak. Baina jantzi osagarriak, altzari denda, lentzeria eta kirol denda ere bazeuden bertan.

Merkemerka izenak berak dioenez, diru gutxirekin gauza asko erostea zen helburua. Merkeraaldiak urtarrilean hasi ziren, eta geratzen diren produktuak merke-merke zeuden bertan. "Helburua ez da biltegia hustea; eskualdeko merkataritza dinamizatzeko zerbait egiteko beharra ikusten genuen", azaldu dute antolatzaileek.

Dendariak biltegien zutena ateratzeaz gain, erosleek ere aukera zabala eduki dute. "Eskualdean, aurrez, ez zegoen horrelakorik eginda, baina gaitortzeko herrietan egindakoek arrakasta eduki dute, eta guk ere saiatzea erabaki genuen", adierazi dinu Garmendiak.



IKUSMINA Jende asko ibili da asteburuan Uarkapen antolatu duten Merkemerkaan.

JOSETXO ARANTZABAL

### ZERTARA ETORRI ZARA ARRASATEKO MERKEMEKAURA?



Esther Murelaga  
Lekeitio

"Etorri naiz entzun dudalako 23 dendak azoka jarriko zutela Arrasaten. Aukera aprobetxatuta, lagun batekin etorri naiz zer dagoen ikustera, arropak merkeago dauden ala ez, eta, igual, zeozer erostekotan. Baina jende gehiegi dago, bero itzela egiten du, eta ez du aukerarik ematen gauzak ganoraz ikusteko".



Gorka Lopez de Briñas  
Legutio

"Erdi derrigortuta etorri naiz neskalgunarekin. Goiza pasatu behar genuen, eta hona etorri gara. Eta, bide batez, begiradaxo bat bota, ea zerbait topatzen genuen edo ez. Jende asko eta ezagunen bat ikusi dut, baina aukera gehiegirik ez. Hala ere, egia esan, ez dut begiratu, bakarrik gomendioak eman".



Ana Sagasta  
Oñati

"Lehenengo gauza, umetxoan arropa pixka bat hartzea etorri naiz, eta ea neretako ere zerbait topatzen dudan. Zeozer, behintzat, erosi dut. Gauzak nahiko merke topatu ditut; aukera onak bilatu ditut. Baina bero eta jende gehiegi dago. Etorri eta buelta azkar bat egin dugu, eta orain bagoaz etxera".

GIZARTEA &gt; ARRASATE-SUNCHALESEN ARTEKO SENIDETZEA

# Gaur senidetuko dira Arrasate eta Sunchales udalerrriak

Atzo, domeka, iritsi zen Sunchaleseko (Argentina) ordezkari Loira

Gaur, 11:00etan, harrera egin eta 12:00etan egingo dute senidetzea

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Atzo, domeka, iritsi ziren Euskal Herrira Arrasaterekin senidetu behar den Sunchales (Argentina) herriko ordezkariak. Martxoaren 4ra arte izan behar dira gurean, hainbat bisita eta ekimen egiten. Tartean, gaur, 09:30ean, MCC bisitatzekotan ziren; 11:00etan, harrera ofiziala egingo diete udaletxean. Ordu bete geroago, osoko bilkura berezia egingo dute, Arrasateren eta Sunchalesen arteko senidetzea egiteko.

Bihar martitzena, atzera ere hitzordua dute MCCrekin, kooperatiba sektorea ezagutzeko. Eta eguaztenean euren jaioterriara bueltatu arte, Eusko Jaurlaritzak argentinarrendako hainbat bisita antolatu ditu, herrialdeak eta erakunde politikoak ezagutu ditzaten.

ARGENTINAKO ORDEZKARIAK

Sunchalesetik gurera etorri dira, hango udaleko ordezkariak eta hango kooperatibetako (SanCor, bereziki) ordezkariak.

Izan ere, Argentinako Santa Fe probintzian dagoen Sunchales udalerrria Probintziako Koo-



ELIZA Kooperatibak izan ezik, Sunchalesek baditu bisitatzeko moduko beste zenbait leku; argazkian, Sunchaleseko eliza. GOIENKARIA

peratibismoaren Hiriburua da. Nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritutako kooperatibak dituzte han inguruan, hain justu ere. Esnekietan oinarritutako SanCor kooperatibak, esaterako, mundu osoan ditu bezeroak; egunean 6.000.000 litro esne prozesatzeko gaitasuna dauka eta, Argentinan barreiatuta, 17 planta ditu. Sunchaleseko plantan, gainera,

kooperatibaren museoa dute. Hain zuzen ere, kooperatiben kontu hori da bi herrien arteko senidetzea bultzatzeko arrazoia.

ARRASATEKOAK ARGENTINARA

Bestelako datu orokorretara begiratuta, probintziako hiriburutik (Santa Fe) 135 kilometrora dago Sunchales, eta Rosario hiritik 272 kilometrora.

2001eko erroldaren arabera, 18.757 bizilagun ditu, haien arbaso gehienak italiar jatorrikoak.

Bestalde, orain eurak hona datozen moduan, aurtengo uztailean, arrasatearrek bisita bueltatu behar diete argentinarrei. Hain justu ere, uztaileko lehen astean, Sunchalesen urtero ospatzen dute Kooperazioaren Nazioarteko Eguna.

UDALA

## Gaurko osokoan, babestutako etxeak

Babestutako etxeen zozketako irizpideak zehaztuko ditu Udalbatzarrak

U.M. &gt; ARRASATE

Hamar puntuko zerrenda dute gaur aztertzeko osoko bilkuran. Tartean, Gelmako eta Uribarriko babes ofizialeko etxebizitzak zozketatzeko irizpideak edo arauak zehaztu beharko dituzte.

Bi proposamenen artean erabaki beharko dute: Etxebidek dituen zerrendak erabiltzaile zozketa egin, Etxebide-erren bitartez; edo Udalean zerrenda berriak zabaldu eta Udalak egin zozketa.

ITURBIDE EGOITZA

Bestelakoan artean, Iturbide egoitza hobetzeko proiektua onartu edo ez erabaki beharko dute; eta EAJk aurkeztutako mozioa aztertu, lehendakariaren kontrako zigor kausaren artxiboaren gainean.

&gt; IKASTAROK

## Autodefentsa eta pilota ikastaroak, martxoan

Izenematea oraindik zabalik dute Emakume Txokoa martxoan egingo dituzten bi ikastaroetarako. Martxoaren 6an eta 13an, pilota ikastaroa egingo dute; eta 23an eta 24an, autodefentsa ikastaroa. Izena emateko, 943 79 41 39 telefonora deitu edo Emakume Txokora joan.

HIRIGINTZA &gt; ETXE BERRIAK

## Bihar, batzarra egingo dute, Musakolarako etxe berrien proiektua aztertzeko

San Antolingo etxeetako atarietako (25 atari dira) buruek batzarra egingo dute Brues eraikuntza enpresako ordezkariekin

U.M. &gt; ARRASATE

Brues eraikuntza enpresak proposamen bat egin du San Antolingo etxeen harira. Hain zuzen ere, proposamena da etxe horiek guztiak (25) bota eta berriak egitea. Trukean, bizilagun bakoitzak berria eskuratuko luke. Hala argitaratu zuen *El Diario Vasco* k joan den domekan.

GOIENKARIA Brues enpresako ordezkariekin harremanetan jarri da, proiektu horren gai-

nean galdetzeko, baina adierazi digute oraingoz ez dizkigutela azalpenik eman behar.

Edozelan ere, konfirmatu dugu bihar, martitzena, batzarra egingo dutela Musakolarako, proiektu hori San Antolingo atarietako buruei azaltzeko. 25 lagun dauden batzarrera deituta. 19:30ean da hitzordua.

Bestalde, zenbait bizilagunek, pertsona nagusiak, azaldu dute proiektuarekin ez daudela ados.

EGITAMUA ALDATU BEHAR

Kontuak kontu, proiektu hori oraindik pribatua da. Udalean ez dute jakinarazpenik. Gainera, azaldu dute, Arrasateko Egita-mu Orokorraren arabera, Musakolarako San Antolingo etxeak kontsolidatuta daudela, hau da, ez dutela aldaketarik aurreikusten. Horrek esan gura du Brues enpresaren proiektuak aurrera egingez gero, atzera ere aldatu beharko litzatekeela Egita-mua.



25 ETXE San Antolingo 25 etxeetan 200 bizilagun inguru daude.

UBANE MADERA



KZGUNEA Teklatuan txertatua dute txartel irakurgailua KZguneko ordenagailuek.

O.E.

TEKNOLOGIA > HERRITARREN TXARTELA

# Administrazioa 'on-line' etxetik, herritarren txartela erabiliz gero

Liburutegian erreserbak egiteko edo maileguak luzatzeko erabili daiteke oraingoz, baina laster, baita Bergarako udal agiriak eskatzeko ere

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Administrazioko hainbat agiri nork bere ordenagailutik eskatu ditzake herritarren txartelarekin: adibidez, liburutegian hartutako liburuaren mailegua luzatu edo lan-bizitzaren agiria eskatu. Herritarren txartela behar da horretarako.

HERRITARREN TXARTELA

Kreditu txartelaren tamaina duen txartela da herritarren txartela, kolore berdekoa. Txip bat du txartel horrek, eta ordenagailuak txip

hori irakurtzen duenean, sinadura elektronikoa sartu eta agiria eskatu daiteke. "Bergaran, liburutegian erabili daiteke bakarrik oraindik, liburuak erreserbatzeko edo maileguak luzatzeko, adibidez. Hala ere, hemendik gutxira beste udal zerbitzu batzuk ere egin ahal izango dira on-line, errolda agiria eskatu edo isunak ordaindu, adibidez", azaldu du Josh Mendez KZguneko ardura-dunak. Udal zerbitzuez gain, INE-Meko tramiteak ere egin ahal izango dira txartelarekin.

IRAKURGAILUA BEHAR DA

Herritarren txartela KZgunean atera dezake 16 urtetik gora duen edonork; doan da. Txartela erabiltzeko, baina, irakurgailua behar da. "KZguneko teklatuak, adibidez, irakurgailua dute txertatuta, eta hortxe sartzen da txartela. Bestela, ordenagailuen osagarriak saltzen dituzten dendetan erosi daitezke irakurgailuak; 10 bat euro balio dute", dio Josh Mendezek.

Dagoeneko 80 herritarrek egin dute herritarren txartela Bergaran.

> IKASTAROA

## Mekanizazioari buruzko ikastaroa Miguel Altunan

Txirbil harrotze bidezko mekanizazioa izeneko ikastaroa egingo dute Miguel Altuna Institutuan. 700 orduko ikastaroa izango da, eta martxoaren 6an hasiko dute. Ikastaroak bi atal ditu: lehenengoan, ohiko makinaren ezagutza, planoen irakurketa eta egiaztatze dimentsionala irakatsiko dituzte, besteak beste. Bigarrenean, zenbaki kontrolko makinaren prestaketa eta programazioa: tornua, fresagailua eta harizko barneratze higadura elektrikoa.

> POLITIKA

## Otsaileko ohiko osoko bilkura egingo dute gaur, astelehena

Otsaileko ohiko osoko bilkura egingo dute gaur, astelehena, udaletxeko areto nagusian. Bederatzi puntu jaso dituzte gai zerrendan. Eztabaidatuko dituzten gai batzuk hauek dira: udal euskaltegia azokan jartzeko egin beharreko egokitzapen lanen adjudikazioa; udal pilotalekuaren erabilera Aspe enpresari uztea 2007an; eta Algodoneran egingo duten etxebizitza eremu berriaren hitzarmena onartzea. 19:30ean hasiko dute osoko bilkura.



BEDELKAR

## Bedelkarreko saria, 'hippie'-ei

Hippie-z jantzita dagoen argazkiko koadrila horrek irabazi du Bedelkarren Aratusteetako saria: 160 euro Bedelkarreko komertzioetan gastatzeko. Aratusteetako koadrila animosoenari eman dio sari hori Bedelkarrek. Zorionak! Bestalde, Aratusteetako argazkiak Nahikariko webgunean daude, eta handik hartu daitezke: [www.nahikari.com](http://www.nahikari.com).



JOSETXO ARANTZABAL

## Eskolak, euskara eta txokolatea

Txokolate-jana egin zuten herriko umeek egubakoitz arratsaldean Munibe plazan. Bada garaia. Bai eskolak euskalduntzeari! lelopean egin zuten txokolate-jana. Aurretik, ikasgeletan egindako marrazkiak eraman zituzten umeek Munibe plazara. Eskolak euskalduntzea eskatzen duten herriko hainbat eragilek antolatu zuten festa.



BULEGOA Olakua auzoko 7ko bulegoa.

MIREIA BIKUÑA

KUTXA &gt; BEHIN-BEHINEKO BULEGOA

## Olakua 7an, Kutxaren behin-behineko bulegoa

San Lorentzo auzoko bulegoko eraberritze lanak egiten diren bitartean egongo da zabalik

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Pasa den astean egin zuen Kutxak bulegoaren leku-aldaketa: San Lorentzo auzoko 3 zenbakitik, Olakua auzoko 7 zenbakira aldatu zuten; Koma akademiaren atzealdean, zapata denda izandako lokalean egokitu dute. Bulegoa ez ezik, Kutxak San Lorentzon duen kutxazaina ere leku horretara aldatu dute.

Kutxaren behin-behineko bulegoa lau hilabetez egongo da aipatu behe-barruan. Bitartean, San Lorentzoko bulegoa eraberritu egingo dute.

BULEGO BERRIA

San Lorentzo auzoko bulegoa goitik behera berrituko dute. Hala, bulegoaren antolamendua erabat aldatu egingo da.

Bezeroen eta langileen arteko harremana estuago izateko, egun bulegoak dituen segurtasun kristalak kendu egingo dituzte. Gainera, barruan, bulego gehiago egingo dituzte.

Kutxazain gehiago ere jarriko dituzte: egun, kutxazain bakarra du Kutxak San Lorentzo auzoan. Hortaz, pasa den astean hasitako eraberritze lanen helburua da San Lorentzoko bulegoa erosoago bihurtzea da, bai langileekin hitz egiteko eta baita eragiketa automatikoak egiteko ere.



MARIAN GONZALEZ

## Gabina Elortza Telleriak 100 urte bete ditu

Otsailaren 19an bete zituen 100 urte Gabina Elortza Telleria oñatiarrak. 1907. urtean jaio zen Zelai Zabal baserrian. Urtebetetzea ospatzeko, erakundeen aldetik, Foru Aldundiaren eta Udalaren eskutik, hainbat opari jaso zituen. Etxekoek ere modu berezian ospatu zuten Gabinaren urtebetetzea; berarekin han izan ziren bere sei seme-alabak, zazpi ilobak eta lau birbilobak, eta baita Gabinaren hiru anai-arrebak ere: Floren, Benita eta Amparo. Zorionak!

BERTSOLARITZA &gt; IV. EDIZIOA JOKATUKO DA

## Oñatiko Bertsolari Txapelketa, martxoan zehar

Txapelketa martxoaren 3an, 10ean eta 17an jokatu da Portu tabernan; finala, martxoaren 31n

M.B &gt; OÑATI

Oñatiko Bertsolari Txapelketak IV. edizioa beteko du aurten. Oñatiko Gazte Batzarrak eta Oñatiko Bertso Eskolak elkarlanean antolatutako txapelketa martxoko lau zapatutan jokatu da: martxoaren 3an, 10ean eta 17an, kanporaketak jokatu dira, eta finala martxoaren 31n egingo dute.

Hiru kanporaketak Portu tabernan jokatu dira, eta finala, berriz, Arrano tabernan. Saio guztiak arratsaldeko 6etan hasiko dira.

Guztira, Bertso Eskolako 16 bertsolarik hartuko dute parte txapelketan.

HIRU TALDE

Txapelketako parte-hartzaileak hiru taldetan banatu dira. Kanporaketa bakoitzean, punturik gehien lortzen duen bertsolaria sailkatuko da finalerako. Gai-nontzeko parte-hartzaileen artean, puntuaketerik onena lortu duten hiru bertsolariek jokatu dute finala. Horrenbestez, sei bertsolarik jokatu dute finala.

Honakoa da hiru kanporaketetan bertsolariek egin behar duen lana: zortziko handian, bi bertso; bi puntuak eta lau oinak emanda, hiru bertso; kopletan, binaka edo hirunaka, beste bi bertso; eta azkenik, kartzelako gaietan, beste bi. Horiei, jakina, hasierako eta bukaerako agurra gehitu behar zaizkie.

Epaimahaian, hiru aditu egongo dira, parte-hartzaileen lana gertutik jarraitzen: Iker Agirre, Lander Diaz de Gereñu eta Iñaki Larral izango dira. Azkenik, gai-jartzaile lanetan Sagartzazutarrak arituko dira.

ETXEAK &gt; BI EGUNETAN BOTA DUTE

## Bota egin dute Atzeko Kale 15eko Urrutxuneko etxea

Arau subsidiarioetan onartu bezela, etxearen ordez ez da besterik eraikiko

ORDENAZIOZ KANPO

Atzeko Kale 15eko etxea arau subsidiarioetan ordenazioz kanpo utzi zen eraikina da. Hortaz, etxea bota egin duten arren, haren lekuan ez da beste etxetik eraikiko.

Urrutxuneko etxeak ezkutan zuen harrizko ate burua gorde eta Kalegoienerako sarbide sinboliko gisa gorde egingo da. Ate-buruaren neurriak hiru metro eta laurogei zentimetro bider metro erdi dira.

Urrutxuneko etxea botatzarekin, Kalegoienerako urbanizazioa osatu egiten da.

M.B &gt; OÑATI

Pasa den astean eraitsi zuten Atzeko Kale 15eko etxea; alegia, Urrutxuneko etxea bezala eza-gutzen zena.

Bi egunetan, hondeatzeko bi makina eta hainbat kamioi aritu dira, etxea lurrera botatzeko lanetan.



MAKINAK Hondeatzeko bi makina aritu ziren, lanean.

MIREIA BIKUÑA

ARETXABALETA > APOTZAETXEBARRIKO 'EGUZKIENEA' PROMOZIOA

# Bruesak bi etxe-bloke egiteko baimena lortu du

9. eta 10. blokeak egiteko baimena jaso dute, eta beste lau bloke egiteko baimenen zain daude

**IKER BARANDIARAN** > ARETXABALETA  
Aspalditik dator Bruesa susta-  
tzaileak 2B sektorean edo Apotza-  
etxebarriko maldaren ingurune-  
an etxeak egiteko proiektua.  
Hainbat arrazoi direla medio,  
Udalak ez dizkio enpresa horri  
baimen guztiak orain dela gutxi  
arte eman.

Dagoeneko, lehenengo bi etxe-  
blokeak (9.a eta 10.a) egiteko bai-  
mena jaso dute. Hala, Bruesako  
arduradunek jakinarazi digute  
martxoaren bigarren hamabos-  
taldian hasiko direla aipatutako

bi bloke horien zimenduak jar-  
tzen eta etxe horiek eraikitzen.  
9. eta 10. blokeak erdigunetik  
gertuen daude.

**BESTE LAU BLOKE, BAIMEN ZAIN**  
Horrez gain, Bruesako arduradu-  
nek aditzera eman digute 5. eta  
6. blokeak egiteko baimena orain  
dela aste batzuk eskatu zutela; eta  
11.a eta 12.a egiteko eskaera egu-  
bakoitzean, aurkeztu zutela. Une  
honetan, eraikuntza sustatzaile-  
a Udalaren erantzunaren zain  
dago.

Dagoeneko, Bruesa jarri da  
harremanetan lehenengo bi blo-  
keetan etxebizitzak eskuratuko  
dituztenekin. Aurreikusitako-  
aren arabera, martxoaren biga-  
rren hamabostaldian kontratuak  
sinatuko dituzte.


**GUZTIRA 12 BLOKE DIRA**  
Apotzaetxebarriko maldan egin-  
go duten urbanizazioa oso han-  
dia izango da, eta tartean, etxe-  
bizitza libreak, tasatuak eta babes  
ofizialekoak egongo dira.

12 bloke horietatik ugari Uda-  
lak bultzatutako etxebizitza tasa-  
tuak izango dira. 2004an egin  
zuten promozio horretan onartu-  
taoeren arteko zozketa.



MAKINAK Egunotan, makinak dabilta Apotzaetxebarrin.

JOSETXO ARANTZABAL



BAZKARIA Mahaiaren bueltan ospatuko dute Aingeru guarda eguna. ARTXIBOA

ARETXABALETA > AINGERU GUARDA EGUNA

## Eguenean erretiratuek bazkaria egingo dute

Bazkarira joan gura dutenek Basotxo elkartera jo beharko dute lehenbailehen

**I.B.** > ARETXABALETA

Eguenean, martxoaren 1ean, Aingeru Guarda Eguna ospatu-  
ko dute hainbat lekutan. Are-  
txabaleako erretiratuek, adibi-  
dez, bazkaria egiten dute urte-  
ro, Aingeru Guarda euren  
zaindaria delako.

**MEZA ETA BAZKARIA**

Hala, herriko Basotxo erretira-  
tuen elkarteak antolatuta, meza  
eta bazkaria egingo dituzte  
egunean. 13:00etan meza esan-  
go dute agustindarren komen-  
tuan. 2006an hildako aretxaba-  
letarren alde egingo dute meza.

Horren ostean, bazkaria  
egingo dute Baster-Alde jatetxe-  
an. 14:30 aldera batuko dira  
mahaiaren bueltan, eta sekula-  
ko menua izango dute: urdaiaz-  
pikoa, antzar *mousse*-a, kabra-

roka pastela, hostopil beroa,  
piper beteak, entrekota, tartak,  
kopa eta kafea, besteak beste.

Basotxoko bazkideek 25  
euro ordaindu beharko dituz-  
te; gainontzeko erretiratuek,  
berriz, 30 euro. Derrigorrezkoa  
izango da bazkideek txartela  
erakustea.

**AUTOBUS ZERBITZUA**

Baster-Alde jatetxera igo eta  
jaisteko autobus zerbitzua jarri-  
ko dute. Hain zuzen ere,  
14:00etan eta 14:15ean igotzeko  
aukera egongo da; eta 18:00etan  
eta 18:15ean, jaisteko.

Interesatuak egubakoitza  
baino lehen eman beharko dute  
izena Basotxo elkartearen.  
11:00etatik 12:30era; eta 16:00eta-  
tik 17:30era bitartean egiten  
dute arreta Basotxokoek.

ARETXABALETA-ESKORIATZA > IRTEERA

## Gaztelekukoek eski irteera egin dute asteburuan

Egubakoitzetik zapatu  
gaura bitartean, bi  
herrietako 31 gaztek  
eskiatzera irteera  
egin zuten  
gaztelekuen bitartez

**I.B.** > ESKORIATZA

Egubakoitzean, Aretxabaleako  
eta Eskoriatzako gaztelekueta-  
ko gazteek Candanchura irteera  
egin zuten. 17:30ak aldera jaso

zuten autobusak, eta Candan-  
chura jo zuten. 31 gazte joan ziren,  
18 eskoriatzar eta 13 aretxabale-  
tar, hain zuzen ere, guztiak 12 eta  
16 urte bitartekoak. Beraiekin  
batera, gaztelekuetako hiru begi-  
ralek egin zuten irteera.

Candanchun elur askorik  
izan ez zuten arren, oso ondo  
pasa zuten gazteek han, eta apur  
bat eskiatzeko aukera ere izan  
zuten. Egonaldia, berriz,  
Canfranc-eko aterpetxe baten  
egin zuten.

Zapatu iluntzerako bueltan  
zeuden ibarrean; oso pozik, bai-  
na oso nekatuta.



CANDANCHU Elur askorik ez egon arren eskiatu egin dute.

GAZTELEKUA

> ESKORIATZA

## Gaur hasiko da Luis Ezeizako kultura astea

Urtero moduan, Luis Ezeiza  
eskolako arduradunek kul-  
tura astea antolatu dute.  
Gaurtik, astelehena, eguba-  
koitzera bitartean egingo  
dituzte ekitaldiok. Gehienak  
eskolako umeei zuzenduta  
daude, eta eskola orduetan  
izango dira.

Kultura astean, Juli Leza  
irakaslea zena gogoratzeko  
ekitaldiak ere egingo dituzte.  
Bestalde, protagonistak ume-  
ak izango dira, hainbat  
antzezlan, kontaketa, tailer  
eta beste egingo dituztelako.

Gurasoei dagokionez,  
*bullying*-a bereizteko berbal-  
dia egingo dute.

ARAMAIO &gt; ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

# Iker Agirre bosgarren tokian sailkatu zen Amurrion

Manex Agirre gaixotu egin zen, eta hirugarren kanporaketan jardungo du

Zigor Enbeita, iazko txapelduna, zuzenean sailkatu da finalaurrekoetarako

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARAMAIO**  
Amurrioko Xarmant txakolindegian jokatu zen zapatuan Arabako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa. Asier Otamendik, Zigor Enbeitak, Serapio Lopezek, Alberto Martinez *Beitto*-k, Iker Agirrek, Ekaitz Samaniegok, Jagoba Apaolazak eta Xabier Lasak jardun zuten bertsotan afalostean Irati Lotinaren esanetara.

Afaritara 50 lagun inguru elkartu ziren, eta giro polita sortu zen bertsoen jiran.

## ARAMAIOAR BAKARRA

Lehen kanporaketan, bi aramaioar ziren parte hartzeok: Iker Agirre eta Manex Agirre. Bigarrena gaixotu egin zen, eta Asier Otamendik ordezkatu zuen Amurrioko kanporaketan.

Manex Agirrek, Andere Arriolabengoa aramaioarrarekin batera, hirugarren kanporaketan jardungo du, martxoaren 3an, zapatua, Araia sagardotegian.

Bertan, Lierni Altuna aramaioarra izango dute aurkezle. Bestalde, Aramaio Garazi Erizek martxoaren 2ko kanporaketan egingo ditu aurkezle lanak. Aipatzekoa da Arabako Bertsolari Txapelketan, aurten, gai jarzaile taldean, aramaioarrak direla nagusi, bat izan ezik, beste guztiak direlako gurekoak.

## SAIO ARINA

Bertsolariak zortziko txikian eta zortziko handian ofizioka aritu ziren lehenengo, eta ariketa bakoitzean hiruna bertso bota zituzten. Ondoren, bakarka puntuari erantzun zioten, eta hitz bati buruz bertso bana bota.

Amurrioko kanporaketan zortzi bertsolarik jardun zuten, saioa astuna izan zitekeela pentsatuko zuen batek baino gehiagok, baina arin joan zen. Zortziko nagusian gai serioak ipini zituzten; txikian, berriz, umorerako tarterik izan zen, bertaratutakoen algarak eraginez.



KANPORAKETA Iker Agirre, kantuan, izan da aurtengo txapelketan abestu duen lehen aramaioarra.

LIERNI ALTUNA

## PUNTUAZIOA

Iker Agirrek ofiziotan ondo jardun bazuen ere, hitzaren gaineko bertsoa botatzerakoan irrist egin zuen. Amaieran bosgarren tokian sailkatu zen.

Zigor Enbeita zuzenean sailkatu da finalaurrekoetara, 162 punturekin. Gainontzekoek hurrengo kanporaketan zain egon beharko dute. Horrela geratu zen sailkapena: Asier Otamen-

di (157 puntu), Serapio Lopez (152 puntu), Alberto Martinez *Beitto*, (141 puntu), Iker Agirre (138 puntu), Ekaitz Samaniego (137,5 puntu), Jagoba Apaolaza (135 puntu) eta Xabier Lasa (122 puntu).



KARTA-JOKOAN Erretiratuak briskan eta tutean aritu ziren. JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA &gt; BRISKAN, MUSEAN ETA TUTEAN ARITU ZIREN

## Karta-jokoan aritu ziren erretiratuak Ozkarbin

Bikote irabazleak apirilean Elgoibarren jokatu den txapelketan parte hartuko du

LARRAITZ ZEBERIO &gt; ELGETA

Arratsalde pasa polita egin zuten barrikuan Elgetako erretiratuek. Karta-joko txapelketa antolatuta zuten elkarteak Ozkarbin, eta 14 bat bikotek eman zuten izena, gehienak emakumezkoak.

Briska izan zen arrakasta handiena izan zuen jokoa, 12 bikoterekin. Tutean aritzeko, bi bikote besterik ez ziren agertu, eta musean jokatzeko ez zen inor agertu. Arrakasta txikia izan zuen honek.

APIRILEAN ELGOIBARRERA

Briskan, Nati eta Itziar Arrieta nabarmendu ziren. Gainerako 11 bikoteen gainetik gelditu ziren. Tutean, berriz, Juan Irababal eta Patxi Arantzabal nagusitu ziren.

Bi bikote hauek apirilean Elgoibarren jokatu den Debarreneko txapelketarako sailkatu dira; izan ere, Elgetako erretiratuak Debarrenean sartuta daude horrelako gauzetarako. Zorte on bi bikoteei!

ANTZUOLA &gt; HERRIKO PLAZA ERE HIRITARTUKO DUTE

## Kalebarren hiritartzeko lanak martxoan hasiko dituztela espero du Udalak

Udalaren asmoa da hiritartutako kaleak asteburuetan automobilendako ixtea, oinezkoei lehentasuna emateko

AINTZANE IRIZAR &gt; ANTZUOLA

Antzuola Udal Etxegintza Antzuolako Udaleko elkarte publikoak lehiaketara atera zituen Kalebarren hiritartzeko lanak. Bihar, martitzena, bukatuko da enpresek proposamenak aurkezteko epea.

Argitara eman dutenaren arabera, lanen aurrekontua izango da 280.359 eurokoa, eta hiru hilabeteko epea izango dute lanak bukatzeko.

Kalebarrengo hiritartzeko faseko lanak Herriko plazako kantoian, okindegiaren parean, hasten dira, eta frontoira doan kantoian pareraino iristen dira. Dena dela, Herriko plaza ere Kalebarrenekin batera hiritartuko dute; izan ere, aurrera doaz erreka bistarazteko lanak, eta buka-

tzeaz daude. Horrela, Udaleko arduradunek aukera hori aprobetxatu nahi dute, fase bietako lanak batera egiteko.

Jose Angel Zabalo alkateak adierazi digunez, berehala esleituko dituzte lanak, eta espero dute martxoan bertan lanekin hastea.

Hiritartzeko lan horiek guztiak, eta lehen Buztinzurin egin zituztenak, Izartu programaren barruan sartzen dira; hortaz, Gipuzkoako Diputazioak diruz lagunduko ditu.

ALDAKETAK

## Automobilek eta oinezkoek kalea partekatuko dute

Lanon helburua da oinezkoen eta automobilaren elkarbizitza erraztea, oinezkoei protagonismo handiago emanda. Udalaren asmoa da asteburuetan hiritartutako kale horiek automobilendako ixtea; aurrerago, berriz, baliteke astean zehar ere, ordu batzuetan, kaleok oinezkoendako bakarrik izatea.

LEINTZ GATZAGA

## Gipuzkoako errenta mailarik altuena

Batezbesteko errenta altuena (18.094 euro) du Gatzagak Gipuzkoan

L. KORTABARRIA > LEINTZ GATZAGA  
Leintz Gatzagari dagokio Gipuzkoako batezbesteko errenta altuena, 18.094 euroko batezbesteko errentarekin. Halaxe jakinarazten du Eustat Euskadiko Estatistika Erkundeak *Euskal AEko Txosten Sozioekonomikoa 2006* delako txostenean.

Dokumentu horrek dioenez, Gatzagak, Gipuzkoako batezbesteko errenta altuena izateaz gain, EAEko higigarrien errenta altuena du, 4.374 eurokoa. Higigarrien bigarren errenta altuena Laukizek du (3.762 euro), eta Bizkaiko batezbesteko errenta altuena duen herria da, Gatzagaren gainetik (23.363 euro). Azkenik, Arabako errenta maila altuena Zigoitik du (16.923 euro).

# Kirola



> **FUTBOLA**  
Mondrak 2-2 berdindu zuen Atxabalpen Touring-ekin > 18



> **ESKUBALOIA**  
Bergarako senior mailakoak, Gipuzkoako txapeldun > 19



> **SASKIBALOIA**  
Ointxe! Arrasateko gazteek lehenengo lehia galdu dute (71-77) > 20



> **SASKIBALOIA**  
51-58 nagusitu dira Eskoriatzako senior neskek Donostian > 20

BERGARA > BINAKAKO TXAPELKETA, FINALERDIAK

## Jokoan sartzea kostatu arren, Xala eta Eulate 17-22 nagusitu ziren

### IPARRALDEKOAK

Gonzalez eta Xala iparraldeko pilotariak lagunak eta arerioak izan ziren atzo

### GORABEHERATSUA

Bi zati ezberdin izan zituen lehiak; gorriak lehenengo eta urdinak gero izan ziren nagusi

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Atzoko finalerdietako lehian, Gonzalez-Pascual eta Xala-Eulate bikoteek txapelketaren presioa nabarmen antzeman zuten. Lehiak bi zati erabat ezberdinak izan zituen; lehenengoan, Gonzalez nagusi izan zen aurrealdeko koadroetan. Aurrelari gorria bizi aritu zen; pilotari indarrez eman zion, eta tanto politak egin zituen.

Urdinak, ordea, gaizki aritu ziren. Xala eta Eulate bikoteak ez zuen elkar ondo ulertu hasierako tantoetan eta, horrenbestez, 7-0eko partziala izan zuten kontra. Markagailua 15-5 jarri zen gorrien alde.

Gonzalezek eta Pascualek atzeko koadroetara eraman zuten jokoak; hala, Xalak ez zuen partiduan sartzeko aukerarik izan. Hotz aritu zen Iparraldekoa hasierako minutuetan.

### XALA BERPIZTU EGIN ZEN

Bigarren zatian, baina, Xala berpiztu egin zen. Aurrelari urdina teknikaz eta abiaduraz baliatu zen aurreko koadroetan jaun eta jabe egiteko. Partiduko 56. minutuan lortu zuen Xala-Eulate bikoteak partiduko lehenengo berdinketa (15-15). Guztira, urdinek 14 tanto egin zituzten jarraian, bata bestearen atzetik; azkenean, markagailua urdinen alde jarri zen (15-19), eta baita dirua ere.

Gonzalez bere onetik aterata zegoen, partidua hasieran egindako lana hankaz gora jarri zitzaion eta. Txapelketaren presioa nabari zuen Iparraldekoak eta hala,

DATUA

# 553

PILOTAKADA

553 izan ziren atzo Bergarako pilotalekuan jokatu zen binakako txapelketako finalerdiak izan zituen pilotakadak. Lehiak 01:13:11 iraun zuen, eta 17-22 nagusitu ziren urdinak.

'EMAKUMEA PILOTARI'

### Emakumeei zuzendutako pala ikastaroa Iturripen

*Emakumea pilotari* proiektua eguaztenean jarri zen martxan, Arrasateko Iturripe pilotalekuan. Proiektuaren helburu nagusia pilotan nesken parte-hartzea bultzatzea da. Horretarako, 25 urtetik gorako emakumeei zuzendutako pala ikastaroa antolatu dute. Iturripeko frontoian izango dira saioak, eguaztenero 18:30etik 19:30era, eta materiala entrenatzaileak eramango du. Ikastaroak maiatzaren 9a arte iraungo du. Proiektua Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak garatu du, Gipuzkoako hainbat herriren laguntzarekin; herri horien artean dugu Arrasate.


hiru hutsarte eskatu zituen.

Azkenean, Xala eta Eulate nagusitu ziren Bergaran (17-22).

### GALDU, URDINEK GEHIAGO

Atzoko lehiak eman zituen zenbakiak hauek izan ziren: aurrealdean, Xalak 10 tanto egin zituen, eta hiru galdu. Gonzalezek ere 10 egin zituen, baina galdu, berriz, zazpi. Atzeko koadroetan, Pascualek ez zuen tantorik egin, baina lau galdu zituen; eta Eulatek bakarrik egin eta lau galdu zituen.

Datorren astean, Xala eta Eulate Olaizola I.a eta Belokirekin neurtuko dira, eta Gonzalez eta Pascual Bengoetxea eta Ruizen aurka arituko dira.



PRESIOA Gonzalez, pilotari ematen, atzean Xala begira daukala.

JOSETXO ARANTZABAL



## SENIORRAK, LEHENENGO MAILA

**Goiko ilaran, ezkerretik hasita:** Iñigo Biain, Paul Isasa, Beñat Barberena, Ander Mallabiabarrena, Iker Lizarriturri eta Xabier Igartua (2. entrenatzailea).

**Beheko ilaran:** Gorka Zurutuza (entrenatzailea), Aitor Zeziaga, Jagoba Gamarra, Gorka Eraña, Imanol Zeziaga, Gorka Alartzia, Antton Hernandez eta Gorka Kintana.





# Arrasateko Saskibaloi K.E. 06-07



SENIORRAK, GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA



EUSKADIKO LIGA, GAZTE MAILA



KADETE MAILA A



KADETE MAILA B



INFANTILAK ARIZMENDI A



INFANTILAK ARIZMENDI B



LEINTZ ESKOLA KIROLA A



LEINTZ ESKOLA KIROLA B



ALEBINAK, MINI SASKIBALOIA OINTXE!



**JOSEBA HARATEGIA**  
Bertako barazian espezialistak

PREFERENTE MAILA &gt; 23. JARDUNALDIA

# Mondrak 90. minutuan lortu zuen norgehiagoka berdintzea

MONDRA

2-2

TOURING

**Mondra** > Mikel, Loiti, Illart (Aitor, 64. min.), Andoni, Iker, Keixi, Arkaitz (Julen, 52. min.), Gotzon, Murua, Ekain (Maikel, 78. min.) eta Josu.

**Touring** > Salinas, Unai, Mikel, Asier, Gaizka, Josu, Harri, Javier, Ahmed, Ritxar eta Madariaga.

**Epailea** > Berasategi jauna. Lan nahiko txukuna egin zuen.

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Partidua amaitzear zegoela lortu zuen Mondrak berdinketa, Touring taldearen aurka. Partidu guztian zehar Arrasateko taldea markagailuan atzetik joan zela ikusita, gutxienez puntu bat lortu zutela esan daiteke. Bada, amaieran, Mondrako entrenatzailea ez zegoen pozik lortutako puntuarekin. "Gaurkoa irabazteko moduko lehia zen. Sailkapeneko goiko postuetan egoteko, ezin ditugu etxetik kanpo lortutako puntuak etxean galdu", adierazi zigun Igor Gordobilek.

Edozelan ere, Mondra sailkapeneko laugarrena da oraindik, 37 punturekin.

AUKERAK, MONDRAK

Lehenengo zatian, gol aukerak Arrasateko taldeak izan zituen; eta horietako batzuk, gainera, oso garbiak izan ziren.

Lehen gola Errenteriako taldeak egin zuen. Mondraren ate ingurura iritsi zen lehenengo aldian, Ahmedek gola egin zuen; partiduko 28. minutua zen.

Golaren ondoren, Mondrak minutu txarrak jokatu zituen,



JOSU ZUBIKARAI Mondraren berdinketaren gola lortu zuen jokalaria, baloia oinetan duela.

JOSETXO ARANTZABAL

baina gai izan zen berdinketa lortzeko, 41. minutuan. Jon Murua izan zen golegilea.

TOURING, BERRIRO AURRETIK

Atsedeneko aholkuek ez zieten askorako balio izan Mondrako jokalariei. Izan ere, 47. minutuan, berriro Touringek abantai-

la hartu zuen. Ahmed izan zen berriro golegilea. Handik aurrera, Gordobilen taldeak bihotzarekin jokatu zuen, buruarekin baino gehiago. Bada, gai izan zen lehia berdintzeko, Josuren burukadari esker.

Amaitu aurretik, hirugarrena egiteko aukerak izan zituen.

UDA ETA ALOÑA

Ezustean galdu zuen Aloñak, sailkapeneko azkenaren, Martuteneren aurka: 0-1.

UDAk azkenik, berdinketa erdietsi zuen Donostiako Berio-  
ren aurka: 2-2. Hala, aretxabale-  
tarrak 8.ak dira sailkapenean, 32  
punturekin.

2. ERREGIONALA &gt; IGOERA FASEA

## Lehenengo postuari eusteko balio duen garaipena (3-1)

Antzuolarrek partidua irabazteko aukera asko izan arren, azken minutuetan gailendu ziren

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; ANTZUOLA

Antzuolak igoera faseko lehenengo postuari eusten dio, zapa-tuan 3-1 nagusitu ondoren.

Antzuolakok partidua ona jokatu zuten etxekoan aurrean. Lehenengo gola Ibai Azkaratek egin zuen, atsedena baino lehen.

Aldagelatik bueltan, aukerak etxekoentzat izaten jarraitzen zuten, baina Azkargortaren mutilek larregi barkatu zuten; hala, Mariñok berdintzea lortu zuen, amaierarako 15 minutu falta zirela. Azkenean, J.G. Godoynek golei esker irabazi zuten etxekoek.



GOLEGILEA Jon Gurutz Godoyk egin zituen azken bi golak.

JOSETXO ARANTZABAL

### emaitzak eta sailkapenak

#### PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	50	23
2. Hernani	44	23
3. Berio	38	23
4. Ordizia	38	23
5. Mondra	37	23
6. Zestoa	37	23
7. Anaitasuna	35	23
8. Aloña Mendi	32	23
9. UDA	31	23
10. Trintxerpe	31	23
11. Touring	30	23
12. Aurrera	27	23
13. Hondarribia	27	23
14. Pasaia	22	23
15. Idiazabal	20	23
16. Mutriku	19	23
17. Urola	16	23
18. Martutene	16	23

#### Emaitzak

Ordizia-Hondarribia	3-1
Aurrera-Hernani	1-4
Zestoa-Pasaia	1-0
Aloña Mendi-Martutene	0-1
Zarautz-Urola	1-0
Trintxerpe-Mutriku	3-3
Mondra-Touring	2-2
Idiazabal-Anaitasuna	0-2
UDA-Berio	2-2

#### Hurrengoak

Ordizia-UDA	
Hondarribia-Aurrera	
Hernani-Zestoa	
Pasaia-Aloña Mendi	
Martutene-Zarautz	
Urola-Trintxerpe	
Mutriku-Mondra	
Touring-Idiazabal	
Anaitasuna-Berio	

#### BESTELAKOAK

#### LEHENENGO ERREGIONALA

Beti Ona-Bergara	2-0
------------------	-----

#### BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA

Landetxa-BTLS	1-1
Antzuola-Mariño	3-1
La Salle-Elgeta	1-0

#### BIGARREN ERREGIONALA, KOPA

UDA-Mondra	1-3
------------	-----

#### EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Mondra-Hernani	1-0
Vasconia-BTLS	0-2

#### EMAKUMEZKOAK, KOPA

Anaitasuna-Arizmendi UDA	2-1
Aloña Mendi	atsedena

#### OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Aloña Mendi-Vasconia	1-2
UDA-Mondra	5-1

#### OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Euskalduna-Bergara	0-1
--------------------	-----

#### LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA

Behobia-UDA Arizmendi	4-4
-----------------------	-----

#### LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, KOPA

Zestoa-Arrasate	-
Bergara-Urki	4-0
Antzuola-Ikasberri	7-1

#### OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Ordizia-UDA Arizmendi	0-1
Bergara-Real Sociedad	1-3

#### OHOREZKO KADETEAK, KOPA

Arrasate-Antiguoko	0-3
Hernani-Aloña Mendi	2-0

#### EMAKUNEZKOAK, ZORTZINAKO FUTBOLA

Arizmendi UDA	atsedena
---------------	----------

#### OHOREZKO INFANTILAK, IGOERA FASEA

Antiguoko-UDA Arizmendi	-
-------------------------	---

#### OHOREZKO INFANTILAK, KOPA

Aloña Mendi-Hernani	0-0
Real Union-Arrasate	1-1

#### INFANTILEN LEHENENGO MAILA

Bergara-Allerru	6-0
-----------------	-----

LEHENENGO TERRITORIALA > INOIZ BAINO JENDE GEHIAGO HURBILDU ZEN LABEGARAIETARA

# Gipuzkoako txapelketa poltsikoratu du Bergarak Ormaiztegi irabazi ondoren

Bi jardunaldi besterik ez dira geratzen liga amaitzeko, eta bergarrek oso gaizki egin beharko lukete Gipuzkoako txapelketak eskuetatik ihes egiteko

BERGARA

**27-25**

ORMAIZTEGI

**Bergara** > Kapelastegi, Uribe, Agirre (1), Sanchez (6), Pozo, Garcia (7), I. Najera, Errasti, X. Najera, Zabaleta, Lenisoro, Ugalde, Plazaola (9) eta Ezenarro (4).

**Ormaiztegi** > Maiz, Agirre (2), Otegi, Alberdi, Mazorriaga (2), Mazorriaga (9), Petxarroman (2), Irizar (4), Maiz (1), Hernandez, Aramendia (2), Galarraga eta Holgado (3).

**Golak** > 1-4, 5-7, 7-8, 9-10, 10-11, 11-14. Atsedena. 13-16, 16-18, 20-20, 24-22, 26-24, 27-25.

tura arte borrokatu zuten maldan gora jarri zitzaizen partidua aurrera ateratzeko.

**BERGARARRAK, HASIERAN URDURI** Norgehiagokaren hasieran, etxe-jokalaria urduri aritu ziren; partidua erritmoa hartzea kostatu egin zitzaizen. Hala, lehenengo 10 minutuetan, lau goleko errenta ateratu zuten Ormaiztegi-jokalariek.

16. minutuan lortu zuen Bergarak partiduko lehenengo berdinketa; penaltiz, Ruben Sanchezek 8-8 egin zuen. Emaizta horrekin, Bergara partiduan sartuko zela ematen zuen, baina ez zen hala izan, atsedenera 11-14 atzetik iritsi ziren-eta etxeokak. Bigarren zatian, lehia erabat gogortu zen, eta Ormaiztegi hiru jokalariek egotzi egin zituen epaileak.

Mikel Plazaolak jarri zuen Bergara markagailuan aurretik, 17. minutuan (22-21). Azkenean, errenta horri eutsi eta Bergarak garaipen ikusgarria lortu zuen. Muniategiren mutilek Gipuzkoako txapelketa ospatu zuten ikusleentzako txalo artean.



LEHIA ESTUA Hodei Lenisoro, jaurtiketa egiten, eta Josu Agirre, lurrean.

JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Partidu guztian atzetik joan eta gero, Bergarak Gipuzkoako txapelketa emango dion garaipena eskuratu zuen atzo. Labegaraita jendez lepo bete zen etxeokak, liderrak, sailkapeneko bigarrenaren kontra jokatzeko zuen lehia ikusteko. Eta jokalariek ez zuten hutsik egin. Azken minu-

GAZTE MAILA, MUTILAK > IBARREKO DERBIA JOKATU ZUTEN ZUBIKOAN

## Azken golak erabaki zuen gazte mailako derbia

ALOÑA MENDI

**25-26**

BERGARA

Neurketa oso berdindua izan zen: hasierako minutuetan, etxeok markagailuan aurretik jarri ziren arren, denbora pasa ahala, mahoneroek errenta indargabetzea lortu zuten.

Atsedena, gol bakarreko aldea ateratu zion Aloñak Bergarari.

**DEFENTSAN, ALOÑA HOBETO**

Defentsako lanean, etxeokak hobeto aritu ziren bergararrak baino. Bergarako taldeak 5-1 sistemarekin hasi zuen norgehiagoka, baina, bigarren zatian, 6-0 egitera pasa ziren. Bigarren sistema horrek zailtasun gehiago jarri zizkion Aloñari atea zulatzerako orduan. Hala ere, Mikel Mantxola, Aloñako entrenatzailea, gustura geratu zen oñatiarrek



LEHIA GOGORRA Ander Ugarte, jaurtiketa egiteko prest.

JOSETXO ARANTZABAL

A.E. > OÑATI

Oñatiko eta Bergarako gazte mailako mutilek lehia ikusgarria eskaini zuten Zubikoa kiroledegian zapatu arratsaldean.

Partidua ikustera hurbildutakoek derbien benetako izaera ikusi zuten Zubikoa. Bi taldeak gogor borrokatu ziren eta, azken unera arte, ez zen ezer erabaki Oñatiko kantxan. Azkenean, lau segundo falta zirela, mahoneroek garaipenaren gola egin zuten (25-26).

egindako lanarekin. Azken minutuetan taldeak fisikoki izan zuen beharadak emaitza nagusian eragina izan zuela aitortu zigun oñatiarrek partidua amaieran.

Begarako entrenatzaile Lander Juaristi ere pozik zegoen tal-

dearen lanarekin. Bergarako gazte mailako taldeak jokatuak 14 partiduetatik 11 irabazi ditu eta, oraindik, sailkapeneko hirugarren postuari eusten dio. Kontuan hartzeko lana egiten ari dira bergararrak aurretik.

### emaitzak

MAILAZ MAILA

**BIGAREN MAILA NAZIONALA**

Gure Jorge Fernandez-Ford Mugarri 34-34

**EUSKADIKO GOREN MAILA**

Verkol Aloña atsedena

**LEHENENGO TERRITORIALA**

Bergara-Ormaiztegi 27-25

Arrasate-Usurbil 22-30

**GAZTE MUTILAK**

Aloña Mendi-Bergara 25-26

**GAZTE NESKAK, UDABERRI SARIA**

Cocinas Aiala-Verkol Aloña atzeratua

**KADETE MUTILAK**

Ereintza-Aloña Mendi 37-31

**EUSKADIKO TXAPELKETA, KADETE**

**NESKAK**

Leizaran-Verkol Aloña 21-27

**KADETE NESKAK, UDABERRI SARIA**

Arrasate-Cocinas Aiala 8-32

EUSKAL LIGA &gt; LAUGARREN JARDUNALDIA

# Mugarrik ez zituen ondo jokatu minutu erabakigarriak

Amaitzeko hiru minutu falta zirela, errenta zazpi puntura murrizteko jokaldia huts egin zuten arrasatearrek

MUGARRI ALKESA

## 71-77

SANTURTZI

**Mugarri Alkesa** > Ander (3), Imanol (14), Mikel (5), Borja (1), Beñat (18), Ugaitz, Antxon (11), Txomin, Aitor (13) eta Sergio (6).

**Santurtzi** Duro, Calbarro (31), Diego, Casado (9), Lasuen (17), Ortolatxipi, Rodriguez, Perez (11), Incera (3), Amutxategi (6), Rodriguez eta Lopez.

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 14-26. Bigarren laurdena: 29-41. Hirugarren laurdena: 48-61. Laugarren laurdena: 71-77.

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Euskal Ligan jokaturako hiru partiduak irabazi ondoren, bolada ona bukatu egin zaio Mugarri Alkesako gazte mailako taldeari.

Lehia hasi aurretik entrenatzaileek iragarri moduan, partidua emozio handikoa izan zen. Halaber, une batzuetan, tentsioa ere nabaria izan zen kantxan.

SANTURTZI, AURRETIK

Euskal Ligako partidu guztiak irabaziak zituen Santurtzik, Arrasaten jokatu aurretik.

ACB liga jokatzeko duen Lagun Aro Bilbao Basket taldeko gazte mailako taldea da Santurtzi, eta, adituen esanetan, Euskal Liga irabazteko hautagai nagusia. Eta hori guztia erakutsi zuen atzoko partiduan zehar, baina, batez ere, lehenengo laurdenean.

Iturripe kiroldegira hurbildutako zaleek giroa berotzen hasi orduko, 0-11ko partziala egin zuten bizkaitarrek. Mugarri Alkesari kosta egin zitzaion lehen saskiratzea egitea (partiduko lehen bostak huts egin zituen). Horregatik guztiagatik, lehen tarte amaitzeko hiru minutu falta zirenean, bizkaitarrek 16 puntuko errenta zuten: 6-22.

ABANTAILARI EUTSI

Bigarren laurdenean hasierako beste partzial batekin (0-7), Santurtzik tarte 17 puntura zabaldu zuen. Tarte hartan, Baltzategi eta Zurbanoren mutilek pre-



ERASOA Beñatek bikain amaitu zuen erasoko jokaldia.

JOSETXO ARANTZABAL

sioa egin zuten kantxa osoan, baina ez zien espero zuten emaitza eman.

Hala, atsedenean, bizkaitarrek ziren aurretik, 29-41. Hirugarren tarte, abantailari eutsi zion Santurtzik, eta Imanolek tartearen amaiera adierazten zuen txirrinarekin batera lortutako hiruko jaurtiketarekin, laugarren tarte hasi zen, 48-61 emaitzarekin.

LAUGARREN TARTEA

Jokaldi erabakigarrietan, Arrasateko jokalariek ez zuten asmatu. Abantaila zazpi puntura murriztu eta lehian jarraitzeko aukera ematen zien jokaldian huts egin zuten.

Amaitzeko zazpi segundu falta zirenean, eta zortzi puntuko errentarekin, Santurtzik hutsartea eskatu zuten. Erabaki hark asko haserretu zituen zaleak.

GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA &gt; 7. JARDUNALDIA

# Hasierako errentari eutsi, eta irabazi egin zuten etxekoek

CANDY B.K.E.

## 72-60

ALLERRU S.B.T.

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; BERGARA

Bergarako senior mailako taldeak garaipen polita eskuratu zuen zapatuan Lezoko Allerru taldearen aurka. Etxekoak nagusi izan ziren lehia guztian; hala, hasierako minutuetan lortutako errentari eutsi, eta 72-60 gailendu ziren bergararrak.

Itxuraz norgehiagoka zaila zirudiena -bi taldeek puntu bate-

ko alde besterik ez dute sailkapenean -uste baino errazago menderatu zuten etxekoek.

BARNERATZE ONAK

Bergarak ondo kokaturako taldea kantxaratu zuen Labegaraletan. Defentsa eraginkorra egin zuten eta, erasoan, Iban Herzogen barneratzeak aprobetxatu zituzten saskiratze samurrak egiteko.

Atsedenean, 37-27 aurretik ziren etxekoak. Hirugarren laurdenean, beherakada izan zuen etxeko taldearen jokoak eta, hori aprobetxatuz, Allerru lau puntura hurbildu zen. Azkenean, baina, jokoa indartu eta 12 puntuko errenta atera zuten etxekoek.



ZONAKAKO DEFENTSA Zulo guztiak itxi zituzten bergararrek.

JOSETXO ARANTZABAL

> 1. MAILA, IGOERA  
**Saskiratze askoko partidua irabazi zuen Mugarrik Zizurren**

Puntuaketa altuko partidua jokatu zuten zapatuan, Zizur Nagusian, Mugarri Alkesak eta Valsay Ardoi taldeek. 95-101 izan zen emaitza. Talde nafarrak denboraldi honetan etxean galdu duen lehenengo partidua izan zen.

Hasierako minutuetan, Valsay Ardoi taldeak hartu zuen errenta markagailuan: 12-4. Berehala, lehia berdindu, eta aurretik jarri zen Gorka Zurutzaren taldea. Partiduan zehar, gehienez ere, hamar puntuko errenta izan zuten arrasatearrek; bada, errenta horri eusteko gai izan ziren. Norgehiagoka azken laurdenean erabaki zen.

> SENIOR NESKAK  
**Azken laurdenean irabazi zuten Eskoriatzako neskek**

Norgehiagoka parekatua jokatu zuten Eskoriatza eta Alde Zaharra taldeek zapatuan. Garaipenarekin, denboraldiko 13.a eskuratu zuten Eskoriatzako neskek: 51-58.

Markagailuak gorabehera asko izan zituen. Minuturik gehienetan, etxeko taldeak izan zuen abantaila; halaber, gehienez ere, hamar puntuko errenta izan zuten.

Baina une erabakigarrietan, laugarren eta azken tarte, Eskoriatzako neskek markagailuari buelta eman eta puntuak eskuratu zituzten. Hala, Eskoriatzako neskek 26 puntu dituzte.

## emaitzak

### MAILAZ MAILA

#### SENIOR MUTILAK

Candy-Allerru	72-60
Ointxe Arrasate-DKS	73-63
Ainhoa taberna-Aloña Mendi	78-66

#### SENIOR NESKAK

Alde Zaharra-Eskoriatza	51-58
Aloña Mendi-Añorga	28-73

#### GAZTE MUTILAK, EUSKADIKO

<b>TXAPELKETA</b>	
Mugarri Alkesa-Santurtzi	71-77

#### GAZTE MUTILAK

Aloña Mendi-La Salle	46-50
----------------------	-------

#### GAZTE NESKAK

Kortazar-Txirrita-Carnicas S.M.	30-44
---------------------------------	-------

#### KADETE MUTILAK

Gros Xake Loiola-Ford Mugarri	54-60
Bergara-Easo Basoa	48-36
Erroibide-Construcciones Alkesa	49-59
Krafft Atco. Sn Sn-Aloña Mendi	47-32

BERGARA

# Herri kirolak deituta, umeeek udal pilotalekua bete zuten zapatuan

**UMEZ GAINEZKA** Haurrek Bergarako udal pilotalekua bete zuten eta, giro onean, bertako herri kirolak izan ziren nagusi goizean zehar

**PROBEN BEREZITASUNAK** Eguneroko kirolak alde batera utzi eta herri kirolek duten berezitasunak ezagutu ahal izan zituzten umeeek

**GOIZ EZBERDINA** Pozik azaldu ziren haurrak herri kirolean jolasten ari ziren bitartean. Horrela, berez jolasak aldatu ahal izan zituzten goiz batez

KOLDO CARRILLO > BERGARA


Herri kirolekin disfrutatzeko eta haurrak horietara hurbiltzeko asmoarekin, Bergarako udal pilotalekua bete zuten umeeek zapatu goizean. Hainbat proba eta joko gainditu behar izan zituzten eskola ezberdinek osatzen zituzten taldeek, beste batzuen artean lokotxak, zaku eramatea, sokatira, txinga eta giza proba.

Goizeko 10etan, benjamin mailakoek hasi zuten txapelketa, eta bertan, alde batetik Aranzadi A, Antzuola A, Aranzadi 2 eta San Martin, eta bestetik, Aranzadi 3, Antzuola B, Elgeta eta Mariaren Lagundia taldeak aritu ziren. 11:30ean, alebiren momentua heldu zen, eta Aranzadi, Los Machacadores, Antzuola A eta Danon Kontra; eta Antzuola B, Supercampeones, Antzuola C eta Euskalduntxoak taldeek neurtu zituzten indarrak.

**GUTXITAN BEZALA**

Umeak oihuka, barrez eta bate-tik bestera arineketan ikusi genituen, baina ez zuten baloirik jarraitzen hori egiten zuten bitartean. Herri kirolek duten berezitasunak barneratu zituzten umeek eta horien inguruko ezagutza sakondu, ederto gozatzen zuten bitartean.

Giro alaia izan zen goiz hartan, eta herri kirolek berritasuna ekarri zuten umeen denborapasa eta jolasetara. Guraso batzuk ere animatu ziren pilotalekura hurbiltzen, eta seme-alaben joan-etorriak interesez jarraitu zituzten eserlekuetatik.



**Elgeta.** Jonek, Gaizkak, Julenek, Narenek, Jonek, Josuk eta Anek osatzen dute taldea.



**Aranzadi 3.** Markel, Vesko, Mikel, Beñat, Iker G., Jon, Iker E. eta Gorka argazkian.



**San Martin.** Marina, Maria, Manex, Biken, Asier, Jabi, Aritz agertzen dira irudian, Julen begiraleak lagunduta.




**San Martin B.** Mikelek, Mohamedek, Anderrek, Jonek, Ikerrek eta Unaik osatzen dute taldea.

HERRI KIROLEN BEREZITASUNAK



Ana eta Jon  
Aranzadi 1



Andoni eta Mikel  
Aranzadi 6



Alex eta Andoni  
Aranzadi 2



Marian eta Karmele  
San Martin A



Markel  
Aranzadi 3

Nahiz eta oso ohikoa ez izan herri kirolean jolastea, oso gustura aritu ziren goiz hartan. "Kaskaren edo lokotxan proba gustatu zaigu gehien", bat zetozen talde bereko neska eta mutila, eta gogo handiarekin egin zuten arineketan makilak batzeko.

Oso gutxitan jolastu izan da bikote hau ere herri kirolean, baina gogoz hartu zuten berritasuna: "Sekula aritu gara lehenago, baina bestelako kirolak ditugu, akaso, gogokoago". Hala ere, irabazteko euren esku zeuzkaten gogo guztiak jarri zituzten probetan.


"Oso ondo joan da goiza, eta gustura aritu gara", esaten zuen bikote honek txapelketaren inguruan galdetzerakotan. "Nekatu ere, asko nekatu gara", gaineratzen zuen Andonik. Proben berezitasunek ere erakarri zituzten, "nahiz eta futbola edo pilota nahiago izan".

"Sekula aritu gara herri kirolean, baina gutxitan", esaten zuten bi neska hauek. "Sokatira da gogokoan dugun proba", zioten ziurtasunez, eta hala erakutsi zuten gero: "Irabazteko asmoarekin etorri gara hona, baina bestelak ere, ez dio axolarik".

Iritzi ona zuen antolatutako herri kirole txapelketaren inguruan; "gustura ibili naiz", zioen. Proba guztietatik, sokatira izan du gogokoan; halaxe esan digu berak.

# Debagoieneko WEBGUNEAK

# WWW.



**AHOLKULARITZAK  
ESTRADOS**  
www.consultoria.estrados.com  
**ASEGI**  
www.asegim.com

**ANTZINAKO ALTZARIAK  
ZUMADIA**  
www.zumadia.com

**AKADEMIAK  
BASTIDA**  
www.bastida.es

**ALTZARIAK ETA APAINKETAK  
BZ-SISTEMAS**  
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas  
**MARRUBI**  
www.marrubi.com

**ARETOAK  
360 ARETOA**  
www.360aretoa.com

**ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK  
MARIA JESUS**  
www.mjargazki.com

**AROTZTEGIAK  
ARREGI**  
www.goiena.net/blogak/arregi  
**AZKARATE**  
www.goiena.net/blogak/azkarate

**ARRAINDEGIAK  
ITXASADER**  
www.goiena.net/blogak/itxasader

**ASEGURUAK  
BRIZ ASEGURUAK**  
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak  
**LAGUN ARO**  
www.seguros lagunaro.com  
**WINTERHUR**  
www.winterhur.es

**AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA  
AUTOS ARETXA S.L**  
www.autosaretxa.com  
**AUTOS RIBEGOLA -BMW-**  
www.autos-ribegola.com  
**GALLASTEGI MOTOR SPORT**  
www.goiena.net/blogak/gallastegi  
**JC RACING**  
www.goiena.net/blogak/jcracing

**AUTO-KONTZESIONARIOAK  
4QUATTRO 4**  
www.goiena.net/blogak/4quattro4

**BIDAIA AGENTZIAK  
BARCELO**  
www.barcelovijajes.com

**BITXITEGI TAILERRA  
OSKAR VITORIA**  
www.goiena.net/blogak/vitoria

**ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK  
ARETXARGI**  
www.goiena.net/blogak/aretxargi

**ELEKTRIZITATE MATERIALAK  
SETALDE**  
www.setalde.com  
**ERAIKUNTZAK  
CONSTRULAN**  
www.construlansl.com

**ERROTULOAK  
PANDO**  
www.goiena.net/blogak/pando

**ESTETIKA ZENTROAK  
ANGELA**  
www.angelaestetika.net  
**GUZTIZ EDER**  
www.goiena.net/blogak/guztizeder  
**LILURA**  
www.lilura.com  
**MAIER**  
www.goiena.net/blogak/richimaier

**FISIOTERAPIA ZENTROAK  
EKIN**  
www.goiena.net/blogak/ekin

**GARBIKETAK  
HEMEN**  
www.hemen-garbiketak.com

**GIMNASIOAK  
IRUDI SPORT**  
www.goiena.net/blogak/irudisport

**HARATEGIAK  
LANDALUZE**  
www.landaluze.com

**HAUR PARKEAK  
OKIPARK S.L.**  
www.goiena.net/blogak/okipark

**HESTEBETEA  
URDEKI**  
www.goiena.net/blogak/urdeki

**HIZKUNTZA AKADEMIAK  
CIM-ONATI BAI & BY**  
www.cim-idiomas.com

**HOTELAK  
HOTEL MONDRAGON**  
www.hotelmondragon.com

**ILE APAINDEGIAK  
RICHI**  
www.goiena.net/blogak/richimaier

**IKASTETXEAK  
MONDRAGON UNIBERTSIA**  
www.mondragon.edu  
**ARIZMENDI IKASTOLA**  
www.arizmendi.ikastola.net  
**ELKAR-HEZI IKASTETXEA**  
www.elkarhezi.com  
**ARETXABALETAKO INSTITUTOA**  
www.iaretxabaleta.com

**INFORMATIKA  
DCA COMPANY**  
www.dcacompany.com

**INGENIARI GEOLOGIKOAK  
HARRILUR**  
www.harrilur.com

**INMOBILIARIAK  
ANBOTO**  
www.inmoarrasate.com  
**ARRIETA & SAN MIGUEL**  
www.arrietasanmiguel.com  
**KOROSTI**  
www.inmokorosti.com  
**UDALATX**  
www.goiena.net/blogak/udalatx

**JANARIAK  
GERTU**  
www.goiena.net/blogak/gertu

**JANTZI DENDAK  
MARKIEGI**  
www.goiena.net/blogak/markiegi  
**UDALAITZ**  
www.goiena.net/blogak/udalaitz

**JATETXEAK  
BASTER ALDE**  
www.baster-alde.com  
**DRAGON ORIENTAL**  
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental  
**DUKIENA**  
www.goiena.net/blogak/dukiena  
**MAULANDA**  
www.goiena.net/blogak/maulanda

**LANDETXEAK  
UXARTE LANDETXEA**  
www.goiena.net/blogak/uxarte

**LANTEGIAK  
BATUAK S.A.**  
www.batuak.com  
**LINEAS LASA**  
www.lasa.es

**LEIHOAK  
ARGI-PLASTIK**  
www.goiena.net/blogak/argi-plastik  
**EGO**  
www.goiena.net/blogak/ego

**LORADENDAK  
EKILORE**  
www.goiena.net/blogak/ekilore  
**MAYTE**  
www.goiena.net/blogak/mayte

**OINETAKOAK  
KORO ZABALETA**  
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

**OKINDEGIAK  
AIASTUI**  
www.goiena.net/blogak/aiastui

**OPARIAK  
MERKEOPARI**  
www.goiena.net/blogak/merkeopari

**OPTIKAK  
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**  
www.goiena.net/blogak/multiopticas

**OSTALARITZA  
GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK**  
www.goiena.net/blogak/garaia

**PUBLIZITATE AGENTZIAK  
ADOX**  
www.adoxnet.com

**SKATE&SNOW  
LAINO**  
www.laino.info

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
BASTIDA SUKALDEAK**  
www.goiena.net/blogak/bastida

**TABERNAK  
EZKUTU**  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly  
**GUREA**  
www.goiena.net/blogak/gurea  
**HAMAIIKA**  
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna  
**ORLY**  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly  
**ZIRIPOT**  
www.goiena.net/blogak/ziripot

**TATUAJEAK  
GANESHA**  
www.goiena.net/blogak/ganesha

**TAXIAK  
GORKA GARAI**  
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

**UDAL ZERBITZUAK  
GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA**  
www.aizue.com

**UMEENDAKO ARROPA  
HAURTXXOA**  
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

**ZERAMIKAK ETA BAINUAK  
GELATZU**  
www.gelatzu.com  
**URBIETA**  
www.goiena.net/blogak/urbieta

**ZERBITZU DIGITALAK  
ATAI**  
www.goiena.net/blogak/atai

**ZUR LANTZAILEA  
ELEJALDE**  
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:  
[www.goiena.net/merkatua](http://www.goiena.net/merkatua)

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu 943 71 23 91 zenbakira.


# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



## > OÑATIARRAK

Potemkin, Amonal eta Lukrecia taldeek rock gaua girotu zuten > 26



## > KILOMETROAK

KMK jaiaren aldeko kontzertua egin zuten ibarreko hainbat taldek > 26



## > LEHIAKETA

Ibarrera zabaldu dute Koldo Eleizalde lehiaketa sail batzuetan > 27



## > FILM LABURRAK

Anduezen eta Altunaren lanak ikusteko aukera Arrasaten > 27



## GASTRONOMIA TXINATARRA

Jatetxe txinatar batera goazenean, janari txinatarra jaten dugu, bai. Baina Europako kulturara egokitutakoa da bertan prestatzen dutena: aurkezpenak garrantzia hartzen du. Kolorea sartzen dute begi aurrera ekartzen diguten plateretan. Gainera, txinatarrek barazkia eta arraina jaten dute gehienbat. Hemengo jatetxeetan, ostera, haragia, oilaskoa, ahatea eta beste lehengai batzuk ere erabiltzen dituzte. Digestio azkarra egiten duen gastronomia da. Probatzekoa.

## GASTRONOMIA TURKOA

Janari astuna benetan, baina bertara doazenek badakite zertara doazen. Txekor edo oilasko haragiz egindako "hanburgesak" dira. Baina hauek benetan betetzen dute. Letxuga, tomatea, tipula... eta bi saltsa aukeran, pikantea eta jogurtezkoa, denetarik jartzeko aukera dago: kontsumitzailearen gustuek agintzen dute. Janari merke eta azkarra, segituan prestatzen dutelako. Hori bai, afaltzeko baino gehiago, aukeran hobeto bazkaltzeko jatea kebab on bat.



## PIZZAK

Pizzeria batera joan, eta Italian erabiltzen dituzten errezetak topatuko ditugulakoan gaude. Baina hori ez da beti horrela izaten. Masa bai, betikoa da, baina osagaietan aldaketak aurki ditzakegu. Izan ere, osagai euskaldunekin egindako produktua sortzea gustuko dutenak ere badaude; Italiako kulturari gure kutsua ematea, azken finean. Odoloste edo onddoekin egindako pizzak ikustea ez da oso ohikoa, baina aukera egon, badago. Betiko urdaiazpiko eta gaztatik ihes egiteko aukera. Hau ere, probatzeko modukoa.

## GASTRONOMIA

# Zapore ezberdinak aukeran

### HAUTAKETA

Debagoiena eskualdean, euskal gastronomiatik kanpora ere, aukera zabala dago

### EZBERDINA

Kanpoko gastronomia probatzen dutenetatik askok ohiko gauzak bakarrik dastatzen dituzte

### EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Euskal Herrian primeran jaten dela diote kanpotik datozen asko eta askok. Euskaldunok egiten dugun festa bakoitzeko, gastronomia ere tartean egoten da: hamaiketako, bazkari edo afariren baten inguruan antolatzen ditugu ekintzak. Euskal gastronomia ez da txarra, ez. Baina Euskal Herrian bertan, kanpoko kulturetako jakiak dastatzeko aukera ere badago: txinatarra, italiarra, turkoa... denetarik. Beste kontu bat da probatzeko prest egotea...

### AUSARTZE KONTUA

Kanpoko gastronomia dastatzera ausartzen ez direnak asko dira. Eta beste askok, jatetxe horietara sartu arren, gauza bat probatu, ohikoa, eta besterik ez dute usaindu ere nahi izaten.

Jatetxe txinatar batera joaten garenean, horixe gertatzen zaigu askotan: ezezagunaren aurrean beldurra sartzen zaigula. Voong Esmeralda jatetxe txinatar baten jabea da. "Inguruan, txinatarra gustuko duen (24. orrialdean jarraitzen du)

## Kanpotik ekarritako gastronomia daukagu gurean

(23. orrialdetik dator)

jende asko dago. Hala ere, batzuei beldurra ematen die probatzea; batez ere, nagusiei" azaldu du Esmeraldak.

Berera joaten direnei zer gomendatu argi dauka Esmeraldak: "Ahatea jatea gomendatuko nuke. Elikagarria da, eta bestelako haragiak egunero jateko aukera daukazu".

Jateko txinatarra prestatzeko orduan, lehengaiak nondik lortzen dituzten ere kontatu du: "Haragia, oilaskoa eta arrautzak herrian bertan erosten ditugu, baina ahatea, adibidez, Ingalaterratik ekartzen dugu, eta gozagarriak denda txinatarretan lortzen ditugu", azaldu du.

Baina jatetxe horietan aurkitzen dugun jatekoak sekretu bat dauka: ez da txinatarrek jaten duten bera. "Europako kultura egokitutako janaria da. Aurkezpenak garrantzia hartzen du. Koloreak agertzen dira plateretan", adierazi du Voongek.

Txinatik, gastronomia turkora egin dezakegu salto Debagoienean. Kebaba moda-modan jarri den jakia da. Baina ez da jatetxean aurki daitekeen bakarria. Mohammed Afzal Chohan jatetxe turko baten jabea da, eta berak azaldu duenez, "jendeari denetarik probatzea gustatzen zaio. Gainera, herrian horrelako jatetxe baten zain zeuden, bestela, kanpora joan behar izaten zuten-eta".

Egunero Chohanen jatetxera joaten denik ere badago, "eta gazteak ezin direnean etorri, gurasoak bidaltzen dituzte euren janariaren bila, eta izena ezin asmatuta egoten dira. Gertatu izan da, aita edo ama horrek probatu, eta gero gustatzea", gehitu du.

Eta Italiako kulturatik ere zerbait hartzeko aukera badago bertoko herrietan. Gainera, euskaldun ukitua ematen saiatu dira pizzetan. "Hemengo izena jartzen saiatzen gara, eta baita osagarriak ere", argitu du Aitor Bengoa pizzeriako zerbitzaria. "Onddoak edo odolostea sartu ditugu gure osagarrien artean".

Etxeko pizza ere asko saltzen dute: txanpiñoiak, okela, txorixoa nahastuta, eta arrautza bat darma erdian. "Etxean gero eta gutxiago egiteko ohitura dago. Horregatik jotzen du jendeak kanpora jateko orduan", adierazi du Aitor Bengoak.

Hiru aukerak aurkeztuta daude; bakoitzak egin dezala orain bere hautua.



LABEA Goian, pizza labetik ateratzen; behean, ezkerrean, oilaskoa banbu eta txinatar perretxikoekin, eta kebab bat.



ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL ETA MIREIA BIKUÑA

### ESANAK

**"Ahatea jatea gomendatuko nuke. Elikagarria da, eta gainerako haragiak egunero jateko aukera daukagu"**

**"Europara egokitutako janaria da. Aurkezpenak garrantzia hartzen du. Koloreak agertzen dira plateretan"**

Voong Esmeralda > Jatetxe txinatarren jabea

**"Jendeari denetarik probatzea gustatzen zaio. Gainera, herrian horrelako jatetxe baten zain zeuden"**

**"Gazteak ezin direnean etorri, gurasoak bidaltzen dituzte euren janariaren bila, eta izena ezin asmatuta egoten dira"**

Mohammad Afzal Chohan > Jatetxe turkoaren arduraduna

**"Hemengo izena jartzen saiatzen gara, eta baita osagarriak ere. Onddoak eta odolostea sartu ditugu"**

**"Etxean gero eta jateko gutxiago prestatzeko ohitura dago. Horregatik jotzen du jendeak kanpora"**

Aitor Bengoa > Pizzeriako zerbitzaria



# kutxa**NOMINAK**

## SMS bidezko Abisu zerbitzu berria

**Nomina  
sartu orduko  
guk abisua  
bidaliko.**

Doako zerbitzua. Nomina **kutxan** helbideratua izateagatik, besterik gabe.

Sartu [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)-en eta eman izena.

KONTZERTUA &gt; KILOMETROEN ALDE KONTZERTUA JAM ARETOAN

# Kilometroen alde 110 lagun bildu ziren Jam aretoko kontzertuan

Matx bakarlariak hasi zituen kontzertuak; hari laguntzen, Domentx Uzin ibili zen

Yotox bakarlariak musikari irudiak sartu zizkioten; denetarik ikusteko aukera egon zen

A. G. &gt; BERGARA

Pasa den egubakoitzean, Jam aretoan, kontzertuak antolatu zituzten Kilometroen alde. Lau taldek jo zuten bertan: Matx, Elgetakoa; eta Arrasateko Radio Wings, eta Bergarako Aby Kem eta Yotox. Laurak bailarakoak, beraz. Eta zein baino zein hobeto moldatu ziren taula gainean. Ikusleak pozik geratzeko moduko kontzertua izan zen.

## ESTILO DESBERDINAK

Kontzertua giro lasaian hasi zen. Elgetatik etorritako Matx bakarlaría oholtza gainean, eta, aldamenean, Domentx Uzin, Soralu-

zekoa, biolin elektrikoa eta baxua jotzen. Giro lasaia, benetan, bien artean jarri zutena. Abestien artean, Danbakan jotakoak entzuteko parada ere egon zen.

Eta lasaitasunaren ostean, ekaitza. Arrasateko Radio Wings taldeak bere estreinako diskoa aurkeztu zuen Bergarako aretoan. Denbora dextente zen taldeak kontzerturik ematen ez zuela, eta jendea pozik geratu zen. Gogorekin hartu zuten ikusleek Arrasatekoen kontzertua.

Danbakako irabazleak ekarri zuen metal ukitua. Aby Kemekoek Bergarako jendea eurekin zuten, eta metal doinu gogorrak



ELGETATIK Matx bakarlaría Elgetatik Bergarako Jam Aretora etorri zen; Domentx Uzin eduki zuen laguntzen. JOSETXO ARANTZABAL

jartzeko ardura eduki zuten. Ikus-kizun dotorea eman zuten. Benetan igarri zen euren buruarengan sinesten dutela bergarar horiek. Lehenengo lerroetakoek giroa berotzen lagundu zuten.

Kontzertua amaitzeko, Yotox bakarlaría aritu ziren. Hauek ere ondo moldatu ziren. Eta jota-

ko musika gutxi balitz, proiektagailu batekin irudiak jarri zizkien melodiei. Denetarik ikusteko aukera egon zen; aipagarriena Zarauzko itsasoa ikustea izan zen, itsasoa harro-harro eta surf-ean zeudenak bertan ikustea.

Debagoieneko taldeak ziren Kilometroen alde aritu zirenak,

eta eskualdeko jendea izan zen, batik bat, bertan bildu zena: 110 lagunetik gora bailarako taldeek zer joko zain.

Gainera, boluntarioak ere egon ziren lana egiten: batetik, afariak prestatzen, eta bestetik, antolakuntzarako orduan, ahal zutenean laguntzen.

KRONIKA &gt; POTEKIN, AMONAL ETA LUKRECIA

## Oñati erdi Bergarako gaztetxean batu zen zapatuan

Begarako gaztetxean Oñatiko hiru taldek jo zuten herenegun gauean: kontzertu onak izan ziren, baina antolakuntza falta izan zen

A. G. &gt; BERGARA

Zapatu gauean, Bergarako Gaztetxean, Oñatiko hiru taldek jo zuten, Potemkinek, Amonalek eta Lukreciak, eta Oñati erdi bertan egon zen; asko, gazteak, gainera, eta batzuek 13 kilometro bizikletaz egin zituzten Bergarara, herrikoekin egotearren.

## GAZTEAK ETA BETERANOAK

Talde gazte batek hasi zuen kontzertua, Lukreciak. Hamabi abesti jo zituzten: euren lau abesti eta beste zortzi bertsio. Talde benetan gaztea da, eta hasiberria, gainera. Ematen zuten bigarren kontzertua izan zen herenegun gauekoa, baina maila oso ona erakutsi zuten. Publikoa bero-bero egon zen eurekin; asko eta asko lagunak zirela esatea ere azpimarratzekoa da.

Horien atzetik, Amonal taldeko beteranoak etorri ziren. Gaztetxea izanda, teknikorik ez, eta soinu aldetik ere gauzak hobeto egon zitezkeen, baina ondo moldatu ziren horiek ere. Eta publikoa ere gustura egon zen eurekin.

Eta hirugarren taldea, Potemkin. Begarako gaztetxea hankaz gora jarri zuten, beste behin ere euren musikaren kalitate ona erakutsita. Publikoa eromeneraino eroan zuten.

Gainera, azkeneko kontzertuan, ezustekoak ere egon ziren: Golpe de Estado taldeak Gernikan kontzertua eman zuen zapatu gauean, baina, handik bueltan, Bergarara etorri eta Potemkinen kontzertuan parte hartzeko astia ere eduki zuten. Txirli-k Potemkinen taldearen azkeneko abestia abestu zuen.



MAILA ONA Lukrecia taldekoek euren bigarren kontzertua eman zuten zapatuan, baina ondo aritu ziren. JOSETXO ARANTZABAL

ZINEMA EUSKARAZ > FILM LABURREN ZIRKUITUA

# Film laburren zirkuitua eskainiko dute Arrasateko Kulturaten etzi, 19:00etan

Euskal Herriko herri askotan emango dituzte film laburrok otsailaren 22tik 30era

Eskualdeko biren lanak daude tartean: Asier Altuna eta Jon Anduezenak

EDURNE BURGAÑA > ARRASATE

Topaguneak antolatutako *Zinea euskaraz: film laburren zirkuitua* eskainiko dute Kulturaten AED euskara elkartearen eskutik, etzi 19:00etan.

DEBAGOIENDARRAK

Otsailaren 22tik 30era artean, Euskal Herriko hainbat herritan emango dituzte film horiek. Sei film labur dira guztira: Ane Muñozen *Loturak*, Asier Altunaren *Sarean*, Ozkar Galanek egindako *Zozoak beleari ipurbeltz*, Iñaki Beratexeren *Osaba Jaxinto*, Koldo Almandozen *Midori*, eta Jon Anduezen *Bilintx*.

Zerrenda horretatik bi, gainera, debagoiendarrak dira: Asier Altuna, Bergarako; eta Jon Andueza, Arrasatekoa.



'SAREAN' Asier Altunaren zuzendari bergararren film laburrek irudi bat.

GOIENKARIA

Jon Anduezen lana dokumental bat bezala hasten da: "Hasieran, arrantzako dokumentala ematen du, baina buelta bat

dago tartean", azaldu du egile arrasatearrak.

Lana "motza eta probokatzailerik dela ere azaldu du. "Gaur egu-

neko gauza bortitz guztien aurrean, kontzientzia apur bat hartzea da helburua, jendea immunitate-tik esnatzea".

Bergarakoaren laugarren laburra da oraingoa, baina bideo-klipak ere egin ditu, eta baita film luze ere: *Aupa, Etxebeste!*

LEHIAKETA > KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETEN 22. EDIZIOA

## Koldo Eleizalde lehiaketan parte hartzeko azken eguna apirilaren 20a da

Aurtengoa 22. edizioa da eta, Bergarara ez ezik, bertso eta komikien atala Debagoien osora zabalduta dute

E.B. > BERGARA

Koldo Eleizalde lehiaketan 22. edizioa jokatu da aurtengoa. Bergarako Udaleko Euskara Batzordeak antolatutako lehiaketan, Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenek parte hartu dezakete. Baina, helduen mailan, komiki eta bertsoen ataletan, Debagoien osora zabalduta dute parte hartzeko aukera.

HELDU GUTXI

Lau ataletan banatzen da lehiaketa: ipuin idatzia, bertsoak,

komiki-tira eta ipuin-kontaketa edo antzerkia. Eta guztietan, gaia librea da.

Helduen mailan, bertsoetan eta komikietan, Debagoien osora zabalduta dute lehiaketa. Arrazoi Esteban Plazaola euskara zerbitzuko arduradunak azaldu digu: "Jende gutxi parte hartzen du bi atal horietan, eta aukera zabaltzea erabaki dugu".

Gainera, parte-hartzaileak adinaren arabera banatu dituzte. Horrela, ipuin idatzian, bost talde egingo dituzte, eta gainerako ataletan, hiru.

Parte hartu nahi dutenek banaka zein talde egin dezakete. Baina pertsona berak, bakarka, bi generotan parte hartzeko aukera edukiko du.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 20ra arte dago zabalik. Sari banaketa ekainaren 2an izango da, Zabalotegi aretoan.



JOSETXO ARANTZABAL

## 'Buztina eta sua Eskoriatzan' erakusketa inauguratu dute

Pasa den egubakoitzean, Eskoriatzako Ibarraundi museoan, *Buztina eta sua Eskoriatzan* erakusketaren inaugurazioa egin zuten, 18:00etan. Udalak, Zubiate labearekin batera, zeramikaren gaineko erakusketa egin gura zuen. Zeramika bilduma XX. mende hasierako 240 piezak osatzen dute, eta, azken hilabeteotan, Isabel Aramendia arrasatearra ibili da zeramika bilduma katalogatzen. Likidoak garraiatu eta mantentzekoak, sutarako zeramikak, janaria kontserbatzekoak, mahaikoak... denetarik ikusteko aukera dago.

## gazte zerbitzuak

## BEKAK

> **Graduondokoak.** La Caixa Fundazioa. Alemanian, Frantzia edo Espainian graduondoko ikasketak egin nahi dituzten lizentziadunei zuzenduta. Epea: apirilak 13.

> **Erabateko kalitateari/bikaintasunari** buruzko lankidetzak beka. Euskalit. Gazteak lan munduan orientatzeko. Lizentziadunak eta diplomadunak, 32 urtetik beherakoak eta langabeak. Epea: uztailaren 31.

## LANA

> **Begiraleak.** Ikastolen Elkartek begiraleak behar ditu udan antolatzen dituen euskal eta ingeles udalekuetarako. Epea: martxoaren 16a.

## BOLUNTARIOTZA

> **Boluntarioak.** Gipuzkoako Gurtze Gorria. Boluntarioak behar dira hainbat esparrutan bakarrik dauden adin txikiko atzeritarrekin elkarlanean aritzeko, gaztelania emateko eta astialdiko ekintzak antolatzeko. Informazio gehiago 943 22 22 22 telefonon.

## INFORMAZIOA

> **Gazteei zuzenduta.** Iragarki taula digitala, bloga da. Zerbait saldu, erosi, etxebizitza bila bazabiltza, edo lagun bila bazabiltza, doanik zure iragarkia jartzeko aukera duzu.

> **Nazioarteko txartelak.** Aterpetxe, ikasle, irakasle edo gazte txartel internazionala atera dezakezu Gazte Bulegoan. Urte bateko iraupena.

## GAZTE IKASTAROKAK

> **Komiki tailerra, gaur egungo dantza, txalaparta eta perkusioa.** Otsailetik aurrera. Izena emateko [www.gaztebulegoa.com](http://www.gaztebulegoa.com) webgunera jo.



## ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:

Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65  
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

## BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Kultura etxea • 943 77 91 57  
gzerbitzua@euskalnet.net

## OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Foruen plaza 4 • 943 71 82 57  
gazteinformazioa@oinati.net

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuolan** Antigua Auzoan Etxebizitza salgai, berriua 72 m<sup>2</sup>, 3 logela, jantzia, berogailua, bista ederrak, balkoia eta eguzkitzua. 198.334€. 685 70 41 10.

**Arebabaleta.** 72 metro koadro. Erdialdean. Azken solairua (buhardilla). 16 metro koadroko garajea dauka. Berrikuntzaren bat behar du. 659 64 67 38.

**Arebabaleta.** Etxea salgai Markole kalean. 97 m<sup>2</sup>. 649 66 49 70.

**Arebabaleta.** Mitarte kalean 100 metro koadroko etxebizitza salgai. Eguzkitsua. Terraza handia. 665 72 18 59 edo 695 78 50 86.

**Arrasate.** Unibertsitate gertu. 76 m<sup>2</sup>. Egongela, bi gela, komunak eta sukaldia. Berrikuntua (gasezko kalefakzio indibiduala, hezetasunaren kontrakisolamendua...). Denak kanpora ematen du. Eguzki-begia. Garajea aukeran. 298.525 euro. 610 55 72 78.

**Arrasate.** Erguin auzoa. Guztiz berriua. 60 m<sup>2</sup> ditu. Guztiz jantzia. 267.000 euro. 629 23 94 89.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, egongela, sukaldia eta bi komun. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. 80 metro koadro ditu. Hiru logela, sukaldia, egongela eta despentsa ditu. 629 62 44 69.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. Jantzia. Hiru logela, komuna eta berrikuntza eta jantziako sukaldia. Terraza ere badu, oso eguzkitsua. Parkinga eskuratzeko aukera. 239.200 eurotan salgai. Deitu 628 88 81 08 telefonora.

**Arrasate.** Ferrixalekuan. Igogailuarekin eta guztiz jantzia. Deitu 943 79 60 88 telefonora.

**Arrasate.** Grupo San Juan auzoan. 60 metro koadro. Igogailua, ganbararekin. Goiko solairua. 606 25 92 80.

**Arrasate.** Grupo San Juanen. Bi logela, berogailu indibiduala, eguzkitsua. Ganbararekin. Deitu 606 25 92 80 telefonora.

**Arrasate.** Santa Marina auzoa. Garajea, hiru logela. Denak kanpoidalera. Jantzia. 692 70 22 76.

**Arrasate.** Uribe auzoan. 85 m<sup>2</sup> inguru, garajea eta trasteleku. Guztiz berriua. 626 35 60 90.

**Arrasate.** Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldia eta trasteleku. Oso eguzkitsua da. Deitu 652 73 22 83 telefonora.

**Bergara.** Bidekurutzetan etxea salgai. Bi logela, egongela, guzti berriua. 699 65 48 34.

**Bergara.** Etxea herri erdian. Lau logela. Altzariekin. 659 44 76 75.

**Bergara.** Zubiaurren. Berriua dago. Ganbararekin. Deitu 943 28 76 36 telefonora.

**Bergara.** Ibarra kalean. 70 m<sup>2</sup>. 685 75 86 95.

**Bergara.** Labegarietan. Guztiz berriua, eguzkitsua, ikuspegi onak, bi logela, sukaldia, jantzia, berogailua, bainugela hidromasajearekin. Bizi izatera sartzeko. 196.000 euro negoziagarriak. 635 71 04 55.

**Bergara.** Simon Arrietan. 80 metro koadro. Bi logela, jantzia, sukaldia, bainugela bat eta berogailua gas naturalarekin, indibiduala. Igogailua. Balkoi ederra du. Garajea aukeran. 270.455 euro. 664 73 49 60.

## IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

# 943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).**

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## BERGARA

**JAM aretoak zerbitzariak behar ditu.**  
677 45 23 31

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Arrasateko familia batek etxebizitza bat alokatuko luke, etxe berria eman arte. Telefona 619 45 42 87.

**Arrasate.** Emakume batek etxea hartuko luke errentan semearekin bizitzeko. 629 94 66 61.

**Arrasate.** Hiru mutil arduratsu etxebizitza bila dabilta. 666 00 52 12.

**Bergara.** Errentan hartuko nuke etxea. 671 33 75 63.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Bergaran edo inguruan. Egoera onean eta ekonomikoa. 677 25 98 02.

**Debagoiena.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan barnean. Bergara, Antzuola edo Oñatin, aukeran nahia. 630 31 84 34.

## 102. EROSI

**Arrasaten,** Musakola auzoan etxebizitza behar da. Derrigorrezkoa hiru logela edukitzea. 653 71 64 79.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Benidorm.** Bi logelako apartamentua errentan ematen da. Levante hondartzan bertan dago. 630 41 84 65.

**Elizondo.** Etxebizitza errentan ematen da. 188 m<sup>2</sup>. Zortzi pertsonarentzako lekua du. Eguzkitsua da. 630 08 33 85.

**Eskoriatza.** Etxea herri erdian. Hiru logela. 696 16 83 06.

**Noja.** Bi logelako apartamentua emango nuke errentan. Garajea eta igerilekua ditu. Deitu 635 75 35 29 telefonora.

**Vera (Almeria).** Apartamentua ematen da errentan naturistagune baten. Jantzia (TB, garbigailua, mikrouhin-labea...). Igerilekua. 657 73 94 25.

## 105. ETXEAK OSATU

**Gasteiz** Neska bat behar da etxea osatzeko Gorbeia kalean. 350 euro, gastu guztiak barne. 652 72 18 87.

**Oñati.** Neska bat behar da, etxebizitza osatzeko. 617 44 85 19.

## 106. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Erdiguneko etxebizitza batean bizi naiz eta beste pertsona batendako lekua dago. Deitu: 619 45 42 77.

## 2/ GARAJEAK

## 201. SALDU

**Arrasate.** Urribarri kalean garajea salgai. 625 47 61 62.

**Bergara.** Erdialdean. Burdilatzen. 21 metro koadro. 23.000 euro. 664 73 49 60.

**Bergara.** Garaje bikoitza salgai erdialdean. Hari atxikitutako lokala errentan hartzeko aukera dago. 625 70 86 50.

**Bergara.** Garaje itxia San Lorentzon. 943 76 40 05.

## 202. EROSI

**Oñati.** Garaje bat erosiko nuke San Lorentzo Auzoan. 657 77 98 64.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Autokarabandako parking plazak errentan ematen dira. Deitu 20:00etatik 23:00etara. 670 49 87 40.

**Bergara.** Garajea Bonifacio Laskurain kalean. 635 75 35 29.

## 3/ LOKALAK

## 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bulegoak alokagai Otalora 18an, Uarkapeko arkupeetan. 638 17 93 63.

**Taberna** Arrasateko Larrea plazan dago. 943 79 38 04.

## 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da arratsalde umeak zaintzeko. 605 72 77 31.

**Debagoiena.** Emakume eskaintzen dasukaldari laguntzaile lanak egiteko. Deitu 677 04 26 73 edo 626 81 32 07 zenbakietara.

## 402. ESKAERAK

**Arebabaleta.** Emakume lanerako gertu etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko... (Ana Maria). Deitu 648 86 09 41 telefonora.

**Debagoiena.** 45 urteko emakume gertu adineko pertsona edo haurrak zaindu eta garbitzea lanak egiteko, 14:00etatik aurrera. 628 82 96 56.

**Debagoiena.** Emakume boliviarrak. Umeak zaindu eta zaintzen edo garbitzea lanetan jardungo nuke. 646 75 08 07.

**Debagoiena.** Emakume bat lane-

rako gertu, pertsona nagusiak zaintzen. Etxe barruan edo ordurka. Esperientzia. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Emakume eta gizon gazteak lanerako gertu gaude. 636 31 15 36.

**Debagoiena.** Emakume gaztea goizetan lanerako gertu gaude. 606 78 15 13.

**Debagoiena.** Emakumea gertu arratsalde eta gauz lan egiteko, baita aste bukaeran ere. Alejandra. 618 42 70 07.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Maria Isabel. 646 76 09 88.

**Debagoiena.** Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko. Gauz ere bai. Etxean zein ospitalean. 688 60 88 38.

**Debagoiena.** Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko. Gauz ere bai. Etxean zein ospitalean. 688 60 88 38.

**Debagoiena.** Erizaintzan ezagutza duen emakumeak bere burua eskaintzen da edadetuak zaintzeko. Deitu 677 04 26 73 edo 626 81 32 07 telefonora.

**Debagoiena.** Etxeak garbitzen, tabernan edo umeak nahiz nagusiak zaintzen lan egiteko gertu emakume bat. 663 46 93 60.

**Debagoiena.** Paperak dituen emakume batek lan egiteko beharra dauka, etxe barruan edo zortzi orduko lanen batean, pertsona nagusiak zaintzen. Esperientziaduna erizaintzako kontuetan. 686 52 15 98.

**Debagoiena.** Gizonezko bat jostun lanak egiteko prest. Barrenak, kremaileak... 699 34 86 88.

**Emakumea** pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 695 58 88 63.

**Neska** prest umeak edo edadeko pertsonak zaintzeko. Goizez eta gauzez. 657 71 51 94.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**BMW 320i** 136 Coupe autoa salgai. 134.000 km. Egoera onean. 659 04 20 99.

**Fiat Escudo** 1.9TD furgoneta. 1999 urtekoa. 166.000 km. Lo egiteko gertatuta. 665 71 73 19.

**Ford** Mondeo TDi. 2002. urtekoa. 90.000 km. 16 hazbeteko hagnak (lantak), gehigarriak. Garajea egon da. 652 74 81 48.

**Honda 250** quad-a salgai. 2002koa. 4.500 km. Egoera onean. 652 70 57 66.

**Nissan Patrol.** 6 zilindro. Autoerendako ordeko beste motor bat ere saltzen da. Oso egoera onean. 943 76 71 11.

**Opel** Agila salgai. Lau urte. 18.000 km. Airegirotua, hagnak (lantak), ispilu elektrikoak. 688 60 45 24.

**Rieju RR** Castrol motorra salgai. 50 cc. 2000 urtekoa, goera onean. Deitu 600 82 73 38 edo 943 77 02 30 telefonora.

**Volvo V-40** auto familiarra salgai. 2000koa. 150.000 kilometro. Gorria. 7500 euro. 943 16 19 45.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Argazki** kamera. Olympus Camedia, D 390. 2 MP, 2,5x zoom digitala eta baimemoria bartel. 60 euro. 639 90 36 18.

**Aspes izozkailua** saltzen dut. 325 litro. 150 euro. 943 76 41 87.

**Bergara.** Hektarea bateko lursaila salgai. Oso egokia bordaxo bat egiteko. 18.000 euro. 678 72 75 72.

**Bi sofa.** Bata bi pertsonerendako eta beste hirurendako. Gorriak, zetazkoak. 50 euro. 665 73 65 95.

**Gaixak** aldatzeko garabia salgai, berria, sendoa eta erabilgarria 2.000 euro. 625 70 11 38.

**Ohe artikulatu** elektronikoak salgai, somier, koltxo eta guzti. Bat metalazkoa (1.000 euro), bestea egurrezkoa (800 euro). 625 70 11 38.

**Telebistarendakomahaia.** 32 hazbeteko (pulgada) telebistarendako aluminiozko eta kristalezko mahaia salgai. Nahiko berria eta prezio onean. 685 79 19 69.

**Snowtaula.** 1,57 metro. Ondodago, merkea. (Xabi). 667 57 13 24.

**Tela zaharrak** saltzen dituzte prezio onean. 943 76 41 87.

## 806. GALDU

**Arrasate.** Otsailaren 10ean (zapata) Trango markako txamarrak beltz bat ahaztu zuten Abaroa aurrealdean. 605 77 23 72.

**Bergara.** Zilarrezko belarritakoa (uztaia) galdu dut San Lorentzo inguruan. 943 76 04 54.

**Ume-kotxea** galdu genuen otsailaren 2an, Zaldibarren, Arrasaten. Prenatal markako da, laranja-beix kolorekoa. Mesedez, aurkitu duenak dei dezala. 660 48 87 40.

## 807. AURKITU

**Bergaran.** Labegarietakoa kirroldegian, orain dela hiru aste bizikleta bat laga zuten. Handik pasatu jasotzeko.

Otsailaren 26a:  
119. zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA  
Harpidedunen  
**txokoa**

## Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 26, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
Astelenehenko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeuren izen zaitzake hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Sariduna**

**120. zozketako saria**

**Harpidedun ez bazara...**

**ECRON** markako  
**MICRO KATE ESTEREO** bat  
Javier Gabilondo Oregi (Bergara)

**Martxoaren 9an ELGETAKO ESPALDIA KAFE ANTZOKIAN** izango den **PICASSO 1937, HISTORIA DEL GUERNICA** antzezlana ikusteko **4 sarrera**. Saridun bakoitzari **2 emango** zaizkio.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**  
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

**35 euro**  
2007 bukaera arte.

**Goienkaria**  
astelenehen, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 26



> Elurraren gainera erreportajea 21:45

Elurrak dakarrena izeneko saioa Iñaki Leturiak aurkezten du eta Goerri Telebistak ekoiztua da. Aurtengo elurtea da gai nagusia.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Teknopolis.  
14:15 Iragana gogoratuz.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Ilunpean.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Klip@.  
16:15 Bizitegia.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Calimero.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Ur eta Lur.  
18:15 Eltze beroa.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Erreportaia.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Harmaillatik.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Erreportajea.  
22:15 Telesaila.  
22:45 Berriak.  
23:15 Didjeridu.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Ikusmira.  
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 27



> Cesario Soule, Bortzirietako hargina 21:45

Xaloa Tebistaren eskutik, Cesario Soule, Bortzirietako harginari buruzko erreportajea ikusi ahal izango dugu martitzen gauean.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Fernando Amezketarra.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Harmaillatik.  
14:15 Erreportajea.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Didjeridu.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Hasiberriak.  
16:15 Ikusmira.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Fernando Amezketarra.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Ilunpean.  
18:15 Klip@.  
18:30 Bizitegia.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Harmaillatik.  
19:45 Berriak.  
20:15 Fernando Amezketarra.  
20:45 Berriak.  
21:15 Berbaire.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Erreportajea.  
22:15 Harmaillatik.  
22:45 Berriak.  
23:15 Iragana gogoratuz.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Harmaillatik.  
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 28



> Korrikari buruzko saio berezia 21:15

Korrikaren gaineko erreportajea eta, gero, mahai-ingurua izango da antolatzaileekin. Aurten emakume euskalduna omenduko dute.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Berbaire.  
14:15 Erreportajea.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Ur eta lur.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Hasiberriak.  
16:15 Eltze beroa.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Fernando Amezketarra.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Harmaillatik.  
18:15 Iragana gogoratuz.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Erreportajea.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Korrika07.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Korrika07.  
22:15 Telesaila.  
22:45 Berriak.  
23:15 Berbaire.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Ur eta lur.  
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 1



> Euskal musikaz blai Musikantoi saioan 21:45

Ixone Serranok euskal taldeen bideoklipak aurkeztuko dizkigu. Horrez gain, bitxikeriak, agenda eta elkarrizketak ere izango dira.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 korrika 07.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Teknopolis.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Erreportajea.  
16:15 Ikusmira.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Eltze beroa.  
18:15 Hasiberriak.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Bizitegia-Klip@.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.  
20:45 Berriak.  
21:15 Berbaire.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Musikantoi.  
22:15 Didjeridu.  
22:45 Berriak.  
23:15 Erreportajea.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Ilunpean.  
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 2



> Jon Maia izango da Ilunpean saioan 22:15

Jon Maiak bere ibilbideaz egingo digu berba: *Apai-zac hobeto* espedizioa, *Riomundo* liburua, Pirritx eta Porrotx, eta beste hainbat kontu.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Berbaire.  
14:15 Musikantoi.  
14:45 Albiste aurrerapena.  
15:15 Eltze beroa.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Didjeridu.  
16:00 Iragana gogoratuz.  
16:45 Albisteak.  
17:15 Calimero.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Korrika 07.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Erreportajea.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Teknopolis.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Hitz bitan.  
22:15 Ilunpean.  
22:45 Berriak.  
23:15 Berbaire.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Jazmina.  
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> Oscar sariak Imanol Gallego zinema adituaren eskutik 11:10

Imanol Gallegoren eskutik, Oscar zinema sariaren berri izango dugu. Saririk garrantzitsuenak, jantzi dotoreenak eta beste hainbat bitxikeri azalduko dizkigu Gallegok. Aurretik, ohikoa den bezala, kirolendako tartea izango da, 10:30ean.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Elkarrizketak  
Lorategiaren geltokia  
Zozketak  
Zorion agurrak  
(parte hartzeko: 943 71 17 31)  
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
17:15 Calimero.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Korrika 07.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Erreportajea.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Teknopolis.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Hitz bitan.  
22:15 Ilunpean.  
22:45 Berriak.  
23:15 Berbaire.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Jazmina.  
00:15 Emisio amaiera.


Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.  
Aste osoan barrena egindako elkarrizketen gainontzeko edukien laburpena

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu

gertutik



Gorka Etxabe  
Kazetaria

"Ikusleen iritzia sortzen laguntzea da 'Berbaire' saioaren asmoa"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Pantailan serio azaltzen bada ere, txantxazalea dugu Gorka Etxabe kazetari aretxabaletarra. GOITBko albistegiak aurkeztu ondoren, gaur egun *Berbaire* saioan ikus dezakegu, martitzenero, 21:15ean. Egubakoitzean, hurrengo astean emitituko duten Txomin Iturbere gainera saioa berezia gertatzen zebilela, berba egin genuen Etxabekin.

Politika gaiak agintzen dute *Berbaire* saioan.

Gaurkotasuneko gaiak aztertzen saiatzen gara, eta, tamalez edo zorionez, Euskal Herrian politika gaiak agintzen dute... Saio informatiboa da gurea, eta ikusleei iritzia sortzen laguntzea da gure helburua, berdin gizarte gaiekin eta bestelakoekin; gertatzen da hainbat gaitan ez dela erraza kolaboratzeko gertu dauden iritzi emaila jantziak topatzea.

Eztabaida gogorak baretzea da aurkezlearen eginkizunetako bat?

Normalean ez zait tokatzen gonbidatuei hitza moztu behar izatea eta horrelakoak; eta kamera aurreko pike hori *rollo* on bihurtzen da saioa amaitutakoan. Kamerak itzali eta gero, gauza asko ikasten da.

Beste telebista kateetako tertuliak eta jarraitzen dituzu?

Telebista ez dut gehiegi ikusten: albistegiak eta Cuatroko hainbat telesail besterik ez. El Gran Wyoming-ek La Sextan egiten duen saioa ere gustuko dut... Baina irratizalea naiz gehiago. Gehien, Radio Euskadi, Ser eta Euskadi Irratia entzuten ditut, orden horretan.

Alaves futbol taldearen etxeko partiduetan *speaker* lanak egiten dituzu. Zure kabinatik zela ikusten duzu Alavesen egoera?

Txarto: Arabako gizarteak Alavesenganako interesa galtzea lortu du Pitermanek. Sekulako kaltea egin die taldeari, hiriari, zaleei eta Alaves osatzen duten guztiei. Pitermanek alde egin arte, honek ez dauka konponbiderik. Eta pena da.

Aita izango zara laster. Aurten ez duzu, baina, bizikleta gordeko, ala?

Ez naiz horrenbeste ibiliko, baina saiatuko naiz aurten ere Quebrantahuesos proba egiten.

asteko hitzorduak

Ipuin kontalaria



ARRASATE

> Ipuin kontalariak izango dira gaur eta bihar haur liburutegi berrian

Gaur, astelehena, Aitziber ipuin kontalariak saioa egingo du haur liburutegian, eta bihar, Ray Buenok gauza bera egingo du. Saioak 18:00etan hasiko dira, eta 6 urtetik gorakoendako umei daude zuzenduta.

Hitzaldia



BERGARA

> 'Zinema eta historia': Errusiako 1917ko Iraultza hainbat filmetan

Eguaztenean, Juan Madariaga EHUko irakaslea Errusiako Iraultzaren eta Sobiet Batasunaren inguruan arituko da Miguel Altuna Institutuko areto nagusian. Hitzaldia 18:30ean hasiko da eta euskaraz izango da.

Kontzertua



BERGARA

> Lordi taldeak emanaldia egingo du Jam aretoan martxoaren 3an

Datorren aste bukaeran Jam aretoan izango da Eurovision lehiaketa irabazi zuen Finlandiako Lordi talde metalzalea. Iaz urrian egitekoak ziren Bergarako emanaldia, baina atzeratu egin behar izan zuten.

## kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Gaurkoa ere  
astelehen  
beltza da

**H**eldu da beste astelehen bat. Eta azkenaldian bezala, gaurko astelehena ere beltz samarra dator Realzaleentzat. Izan ere, Realzaleak bai, baina realistik ere bagara. Eta egoera honi ez diot itxura onik hartzen, nik behintzat. Bigarren maila inoiz baino gertuago ikusten dut.

Aitortu behar dut aurten go denboraldian ez naizela Anoetan egon. Gureko futbol zelaia eta kiroldegia, berriz, nire bigarren etxea dira. Hauetan ere sufritzen da, batzuetan beste batzuetan bai.

**"Caiga Quien Caiga"-koak bezala, gu ere berriemaileak bidaltzen hasi behar gara"**

no gehiago, baina sarrera, behintzat, merkeagoa da.

Kirolak sortzen duen pasioaren inguruan, festa asko antolatzen dira. Oraingoan, baina, informatikaren inguruko festa izan da Arrasaten: Wikifarra. Internet sarearen bidez egin zuten hitzordua teknofiloek (harrapa zak/n). Eta Wikifarra zer zen jakin guran, kuxkuxeatzera joan zenik ere egon zela esan digute; eta ez ginen gu izan. Hori bai, *Caiga Quien Caiga*-n bezala, gu ere berriemaileak bidaltzen hastea da nire proposamena.

Oñatiko Elkar-Hezi ikastetxeok, Internet bidez beharrean, korrika irabazi dute *Berria*-k zozketatu duen Port Aventura bidaia. 3.000 haurren artean, Oñatiko Jone Agirre izan da saritua.

## hildakoak

• Jose Maria Gonzalez Movilla.

Arrasaten, otsailaren 22an. 55 urte.

• Jesus Ibabe Orueta.

Arrasaten, otsailaren 22an. 67 urte.

• Prudencio Nafarrate Unzueta.

Arrasate, otsailaren 22an. 63 urte.

• Alfonso Medina Fabian.

Eskoriatzan, otsailaren 23an. 70 urte.

• Antonio Vicario Prieto.

Arrasaten, otsailaren 24an. 63 urte.

## asteburuko albuma



**Wikifarra.** Informatika eta Internet kontuetarako zaletasuna duten hainbat lagunek hitzordua egin zuten egubakoitzerako. Arrasaten elkar-tu ziren sei lagun, eta Muxibar pizzerian afaldu zuten. Baldintza zen ordenagailua etxean utzita agertzea lagun artera. Hala ere, ordenagailu eta informatika kontuak izan zituzten berbarako gai. Lagun eta jai giroan, beste zaletasun bat partekatzeko aitzakia, azken finean.



**Intxortara gauez.** Hainbat gurasok lagunduta, neska mutikoez irteera egin zuten zapatu iluntzean Intxortara. Ilunetan, kopetan ipinitako argiaren laguntzaz, egin zuten gailurrerako bidea. Bueltan, txabola batean afaldu eta Asentzión barrena itzuli ziren. Euririk ez ziharduen arren, lokatza izan zen traba handiena. Hala ere, gustura ibili ziren umeak.



**Txistulari sagardotegian.** Antzuolako Txistulari Taldeko kideak Hernaniko Larre Gain sagardotegian izan ziren zapatu iluntzean. Domeka goizetan, kalejira egin ohi dute Antzuolako kaleetan, baina badirudi kalejira zapatura aurreratu zutela. Arratsaldean, txistua jo zuten herrian, eta gero, Hernanira joan ziren afaltzera. Sagardotegian, afalostean, txistua jotzen ez, baina kantuan jardun zuten antzuolarrek.



**Oihulari Klowner Inkerun.** Eskoriatzako Inkernu tabernan klowner saioa izan zen egubakoitz gauean. Oihulari Klowner taldeko bi kidek *La Espera* komedia lana antzestu zuten, euren printze urdinaren zain zeuden bi neskaren papera jokatu. Inkernu goraino beteta egonik, beharbada bertan aurkitu zuten euren ametsetako mutila.



**Sahararen alde Bilbon.** Bihar, otsailaren 27an, beteko da Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoaren 31. urteurrena. Hori gogoratzeko, Sahara Herriaren autodeterminazioa aldarrikatzeko, 400 lagun inguru batu ziren zapatuan Bilbon. Tartean ziren Sahararen aldeko ibarreko Nubi, Bubisher eta lesbaa taldeetako ordezkariak, eta eurretako batekatera zuen alboko argazkia. Gogorazi zuten saharar herriak ezin duela subiranotasuna lortu, eta 200.000 saharar inguru Tindoufen errefuxiatu bizi direla.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen: **943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 €**.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**



## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: [astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)

**zorion agurrak**



**ARRASATE**  
**Bittor Arriaran**  
Otsailaren 22an urtebetetzea. Zorionak aitatxo! Muxu handi-handi bat zuretzat.



**ELGETA**  
**Sebastiana Atorrasagasti**  
Otsailaren 24an 86 urte. Zorionak, amama. Muxu handi bat familiako-en partetik.



**ARRASATE**  
**Izaro Soto Atxa**  
Otsailaren 24an urtebetetzea. Zorionak, amatxo-ren laneko laguneren partetik.




**ARRASATE**  
**Aurora Iturricastillo**  
Otsailaren 25ean, 63 urte. Etxeko-en partez muxu potolo-potolo bat.



**ESKORIATZA**  
**Jon Ander Errasti**  
Otsailaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak Ras! Juerga on batez ospatukou zure 30 urtezarrak! Ja ja.



**ARRASATE**  
**Mikel Lagunilla Amozarrain**  
Otsailaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak Tarzan! Ondo Atxabaltan ezta? Muxu handi bat.



**ARETXABALETAKO**  
**Aner Zugasti**  
Otsailaren 25ean, urtebete egin du. Zorionak etxeko-en partetik!



**ARRASATE**  
**Iker Sanpedro**  
Otsailaren 25ean urtebetetzea. Zorionak Sanper! Ondo pasauko zauen zure eguna ezta?



**ARRASATE**  
**Ibai Misol**  
Otsailaren 26an urtebetetzea. Zorionak Ibai! Zure osaba-izeba eta Blankaren partetik.



**ESKORIATZA**  
**Imanol Pavo Exposito**  
Otsailaren 26an, 22 urte. Zorionak eta urte askotarako! Gurasoak, anaia eta Maitane.



**ARETXABALETAKO**  
**Iñigo Arkauz Uribesalgo**  
2007/02/27 Otsailaren 27an, 7 urte. Zorionak eta muxu bat etxeko-en partetik.



**ARRASATE**  
**Mikel Etxeberria**  
Otsailaren 27an urtebetetzea. Zorionak Txetx! Ondo pasau eguna!



**ESKORIATZA**  
**Esti Aguado**  
Otsailaren 27an urtebetetzea. Zorionak Estitxu! 27an 23 urte. Holan jarraitu majisima! Koadrilakoek.



**BERGARA**  
**Aitor Lopez de Lacalle**  
Otsailaren 27an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat etxeko-en partetik.



**OÑATI**  
**Aitor Urizar Markuleta**  
Otsailaren 28an, 9 urte. Zorionak eta muxu haundi bat zure lehengusuen partetik...



**BERGARA**  
**June Salaberria**  
Martxoaren 1ean 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partez, bereziki Aitor, Sara eta Aimar.



BABESLEA

**jaiotakoak**




**Gorka Benito Cayon**  
Torrelavega (Kantabria) > 3.300 kg. Otsailaren 13a. Gurasoak: Luis (Aretxabaleta) eta Vanesa (Torrelavega). Argazkian, Ana izebaren besoetan.



**Danel Gonzalo Maria**  
Arrasate > 3,260 kilo. Otsailaren 19an. Gurasoak: Teresa (Arrasate) eta Antonio (Arrasate). Argazkian, Danel jaioberria amarekin agertzen da.



**Garazi Aiastui Izarzuaza**  
Aretxabaleta > 3,600 kilo. Otsailaren 19an. Gurasoak: Olatz (Aretxabaleta) eta Josu (Arrasate). Argazkian, Garazi bakarrik agertzen da.



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



**Auritz Regueiro Fernandez**  
Oñati > 3,720 kilo. Otsailaren 19an. Gurasoak: Elena (Oñati) eta Inazio (Oñati). Argazkian, ume jaioberria amarekin ikus dezakegu.



**Nerea Urizarren Matxuka**  
Arrasate > 3,250 kilo. Otsailaren 20an. Gurasoak: Matilde (Arrasate) eta Aitor (Aramaiio). Argazkian, Nerea jaioberria amarekin agertzen da.



**Unax Naranjo Aranguren**  
Arrasate > 3,010 kilo. Otsailaren 20an. Gurasoak: Nerea (Arrasate) eta Dabid (Arrasate). Argazkian, ume jaioberria amarekin ikusten dugu.



**Ariane Igartua Muxika**  
Bergara > 3,090 kg. Urtarrilaren 16a. Gurasoak: Ainara (Bergara) eta Iñigo (Bergara). Argazkian, umea aita-amarekin agertzen da.



**Haizea Frutos Martinez**  
Oñati > 3,400 kilo. Otsailaren 21ean. Gurasoak: Estibaliz (Oñati) eta Migel (Arrasate). Argazkian, Haizea txikia amama Elirekin agertzen da.



**Eder Luengo Elkoro**  
Arrasate > 3,470 kilo. Otsailaren 23an. Gurasoak: Josune (Arrasate) eta Asier (Arrasate). Argazkian, Eder jaioberria bakarrik azaltzen da.



**Aimar Diez Castro**  
Aretxabaleta > 3,250 kilo. Otsailaren 24an. Gurasoak: M<sup>a</sup> Jose (Bergara) eta Ruben (Tormantos, Errioxa). Argazkian, haurra birraitona Pedreorenkin.



**Alexi Marquez Chavez**  
Arrasate > 4,150 kilo. Otsailaren 25ean. Gurasoak: Scarleth (Bolivia) eta Jose (Portugal). Argazkian, Alexi umea amaren besoetan agertzen da.

Gregorio Galvez > Irrati esataria eta irakaslea

# "Punk musikak beti piztu izan du nire arreta"

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE**  
Herri Irratiko *Sector Rock* musika saioko zuzendaria da Gregorio Galvez. Egubakoitzean, Arrasateko Shot! estudioetan grabatu zuen, ibarreko hainbat talderekin eta kolaboratzaileekin, zapatuan irratitik emateko programa. Esatariaren beteranotasuna gertutik ezagutu dugu.

**Irrati esatari moduan ezagutu arren, irakaslea zara, ezta?**

Lehen lana irradi esatari moduan egin nuen. Baina amari irratikoa ez zitzaion lan serioa iruditzen, eta irakasle ikasketak egin nituen. Orain, Donostiako Alzakako institutuan irakasle naiz.

**Zer dira musika eta irratia zuretzat?**

Nire zaletasun nagusiak. Umeen jolasak nagusien lanbide izaten dira askotan eta, txikitik, makila mikrofona balitz bezala erabiltzen nuen. Irakaskuntza ere oso gustuko dut. Gogorra da, baina, era berean, esker onekoa.

**Beste zaletasunik baduzu?**

Irakurtzea. Gainera, orain liburutegiko arduraduna naiz

institutuan. Baina nagusi izatearen txarrena da ez dudala astirik. Denborak ito egiten nau.

**Kontzertu askotara joaten zara?**

30 urtetik gora daramatzat musika kontuetan, eta zuzeneko asko entzun ditut. Urte batzuetan, utzi egin nion joateari, baina itzuli egin naiz. Ez nahiz nahi beste joaten, hala ere.

**Gazteen artean ibiltzeak gaztetu egiten zaitu?**

Gaztetu ez, baina lagungarri zait. Kolaboratzaile eta laguntzai-

le gazte asko ditut. Lehen, musika aukera mugatua zen: rock, blues, jazz, folk eta country. Orain, aniztasuna dago, eta hori ulertzen laguntzen didate gazteek.

**Zein musika duzu gustuko?**

Garaiaren eta unearen arabera. Punkak beti piztu du arreta nigan, eta hardcore melodikoa ere oso gustuko dut. Metala ere gustuko dut. Bergarako Aby-Kem zuzenean ikusgarria da. Heavya, bestalde, ez zait sekula gustatu.

**Futbol partiduak ere eman dituzu irratitik.**

Esatari profesionala nintzean, denetarik egiten nuen: publizitatea, albistegiak, futbola...

**Zurumurruek esan zuten zure saioa kenduko zutela.**

Familia arazoengatik, saioa utzi behar izan nuen, eta asmatu nuen kendu egin behar zidatela, eta batzuek sinetsi egin zuten. Denboraldi hau azkena izango dela ere esan dut, baina zaila da horrelako saio batekin jarraitzeko konpromisoa hartuko duenik aurkitzea.



ARRASATEN Shot! estudioetan grabatu zuen zapatuko irratsaioa. JOSETXO ARANTZABAL

TEST-A

**Herrria:** Ourensekoa jaiotzez, Oiarzunen bizi izandakoa, eta orain Donostian bizi da. **Adina:** 58 urte.

**Ikasketak:** Irakasle ikasketak.


**Musika talde bat:** Rolling Stones.

**Gustuko txoko bat?** Galizian Esgos herrian dut etxetxo bat, atsedenerako. **Plater bat?** Edozein arrain.

**Entzundako azken kontzertua?** Los Cretinos talde arrasatearrarena, Donostiako taberna batean. **Zergatik utziko zenuke irratia?** Sendagileek eskatu arren, ezer gertatu ez.

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

**Ardoaren Lege proiektua atzera bota du PSOek. Ondo iruditzen zaizu erabaki hori?**



**biharamuna**

Juan Kruz Mendizabal

## Astindu bat

Jendeak harriduraz begiratzen ninduen aurreko igandean hain maitea dudana Inauterietako txilaba bat jantzi nuenean meza emateko. Haur, guraso eta gaztetxoekin hilean behin egiten dugun eukaristian jantzi nuen halako jantzi distiratsu hura. Batzuk txalotu egin didate esanez **Elizak** bere armiarma eta iraganeko prejuizioak astindu behar dituela; beste batzuentzat, iskanbilatsua izan daiteke halako espazio sakratuan orden eklesiastikotik ateratzen den zerbait egitea.


Ez bat eta ez bestea egiteko asmorik ez nuen. Tolosan apaiz eta herritar bezala igaro ditudan urteak halako festarako gogoia piztu zuten nigan eta



oraindik, nonahi, irauten dit. Elizako agintarien bertikaltasun eta eliztarren arteko harreman hotzek festa eta hurbiltasuna behar dute tarteka eta ni horretan aproposa naiz. Ez da marketing kontua barrenetik sortzen den alaitasunez bizitzek gogoia baizik. Eta honen premian gaude Elizak dantsu honetan.

Horregatik inor mindu edo konbentzitu nahian ez nintzen hala jantzita azaldu. Gure Elizak astindu bat behar du, handia, baikorra, espirituala eta ebanjelikoa. Herriari eta ebanjelio berrari zor diogun leialtasunak berritzea eskatzen digulako. Axalez ez, barrenetik hasita.

**eguraldia**



MINIMOA  
**+07**

MAXIMOA  
**+12**

Eguneko lehen partean, euria egingo du. Arratsaldean, zeru garbitzen joango da, baina egun amaieran, berriz estaliko du.

[www.euskalmet.euskadi.net](http://www.euskalmet.euskadi.net)

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

**Pop-Rock**  
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**  
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**  
Amore amore (Karidadeko benta) | **AMORE**  
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | **ASKATA**  
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**  
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**  
Dub manifest (Fermín Muguruza) | **DUB**  
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**  
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**  
Elos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**  
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**  
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**  
Etorikizuna (Etsaiki) | **ETORKI**  
Ezer ez da betiko (Ken?) | **EZER**  
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

**5767** zenbakira

SMS bakoitzeko:  
**1,2 € + BEZa**

**smsoinu**  
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**LOGOAK (SMS 1) KODEA**

ZINEMA	AIZKORAK
GLOBUAK	EGUZKILORE3
ZORIOK	
NIREKIN	SORGINGA

**OHARRAK**  
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragarri](http://www.smsoinu.com/bateragarri)  
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jar zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jaitziera bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.  
\*Euskaltel: deitu 900 94 02 00 telefonora. \*\*Vodafone: deitu 123-za. \*\*\*Movistar: deitu 030-ra.  
3. **ZALANTZAK:** Edukien zalarantzak duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.  
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logok. Webgune honetan kalera eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)